



Igandean Nafarroako Parlamentua eta udalekin batera kontzejuak ere berrituko dira / 10-11

Olatzagutiako Koskobiloko kobara daraman ibilbideko lanak aurki despedituko dituzte / 5

Joanes Bakaikoak Promozioko Buruz Buruko finala jokatu du Iker Salaberriaren kontra / 16

Beatriz Salinas Martínez de Ordoñanaren 'Memorias' liburua aurkeztuko dute / 22



Imanol Arregiren martxak Xotaren aro bat itxi du. Urte luzez dena eman du bere klubaren alde / 18-19



Azpimarratutako anekdotak

Nerea Balda Sanjuan idazle irurtzundarrak bere bigarren eleberria kaleratu du: 'Azpimarrak' / 23

"Unibertsitatea beste ikuspuntu batetik ikusten dugu"

MARTIN LARRAZA KINTANA NUP-EKO ERREKTORE ORDEA

Ramón Gonzalo García errektorearen zuzendaritza taldean egonen da beste lau urtez Arbizuko unibertsitate irakasle eta ikertzailea

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatura ikasten ari zela istripu batek bere ibilbide profesionala aldatu ziola esan du Martin Larraza Kintana arbizuarrak. Enpresa zientzietan diplomatua, Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua, Ekonomia doktorea eta Nafarroako Unibertsitate Publiko katedratikoa, duela lau urte Ramón Gonzalo García NUPeko errektorearen zuzendaritza taldean sartu zen. Gonzalo beste lau urtez izanen da errektore, eta Larrazak Kalitatea, Ekonomia eta Estrategia errektoreordezkaritzako buru izaten ere jarraituko du.

Zer da errektoretza?

Errektorea unibertsitateko burua da, eta berak bere taldea osatu du. Gu errektoreordeak gara. Errektoretza errektoreak, errektoreordeak, idazkari orokorrak eta gerenteak osatzen dugu. Nafarroako Gobernuan lehendakaria eta kontseilariak daude, bada horrelako zerbait. Gure unibertsitatean eskolak edo zentroak daude, fakultateak,

eta horietako bakoitzean dekanoa edo, gure kasuan, zuzendariak daude. Egitura matritziala da: errektoretza, eskolak eta departamentuak.

Nolako esperientzia izaten ari da errektoreordea?

Ni berez ikertzailea eta irakaslea naiz, eta horretan ibilbidea egin dut. Kudeaketa kontuetan ere ibili naiz, baina hau beste zerbait da. Kudeaketan zentratutako lanpostu bat da. Ezberdina eta interesgarria da. Unibertsitatea beste ikuspuntu batetik ikusten duzu. Beti egon naiz nire klaseak ematen, nire bulegoan nire gauzeekin, eta orain unibertsitatea bere osotasunean ikusten dut; gauzak nola elkartzaren diren eta nola konektatzen duten.

Irakasle izaten jarraitu duzu?

Errektoreorde sartu nintzenean ikusi nuen ez zela oso bateragarria. Oso zaila da klaseak eman, gehienbat graduatan, eta lan hau. Urte pare batez doktoretzako masterrean klaseak ematen jarraitu nuen, baina azkenean utzi behar izan nuen.

Enpresa zientzien diplomatura ikasten hasi zinen. Zergatik?

Batxilergoa edo garai horretan UBI zena amaituta argi duzu zer ez duzun egin nahi, baina ez oso argi zer egin nahi duzun. Selektibitatea gainditu nuen, eta ekonomia eta kudeaketaren arloa erakargarria iruditu zitzaidan. Argi neukan hiru urterekin nahikoa nuela; diplomatura batekin nahikoa nuen. Ingeniaritza bat ikasteko nahiko traketsa ikusten nuen nire burua marrazteko orduan, eta enpresa eskola Iruñean zegoenez...

Diplomatura amaituta, ikasten jarraitu zenuen.

Hiru urteak egin eta momentu horretan Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura, LADE izenez ezagutzen dena, hasia zegoen Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Zuzenean hirugarren mailara sartzen utzi ziguten. Anekdotak gisa kontatzen dut unibertsitate irakasle naizela kotxe batek harrapatu ninduelako: lizentziaturako azken urtean gelakide batekin Aste Santuko oporren aurretik fotokopia batzuk egitera joan behar ginen eta kopisteria beteta zegoen. Kotxea hartu eta beste batera joan behar

ginen, presaka eta korrika, eta ongi begiratuta ere kotxe batek harrapatu ninduen; hanka hautsi zidan. Hurrengo egunean Laboral Kutxatik deitu zidaten bertan lan egiteko. Esan nien justu hori gertatu zitzaidala baina hogeie egunetan kenduko zidatela, itxoiteko. Lan aukera hori galdu nuen. Ikasketak bukatu nituen eta denboraldi bat lana bilatzen ibili nintzen eta ez nuen ezer aurkitu. Doktoretza ikastaroak egiten hasi nintzen. Beka bat eman zidaten eta lana banuela pentsatu nuen. Kotxeak harrapatu ez banindu, Laboralean sartuko nintzateke lanean eta, nork daki, banketxe langilea izango nintzateke. Orduz geroztik ibilbide xelebrea izan nuen.

Enpresa zientzietako ikertzailea zara, zer esan nahi du horrek?

Gizarte zientzietako ikertzaileak gara. Normalean zientzia aipatzean laborategiak eta horrelakoak datozkigu burura. Guk ikertzen dugujendeak zer nolako erabakiak hartzen dituen enpresa batean daudenean; zerk bultzatzen duen jendea enpresa baten barruan gauza batzuk edo beste batzuk egitera, motibazioak eta abar; zergatik enpresaburu batek erabaki batzuk hartzen dituen; zer eragin eta pizgarri dauden ekonomian; zergatik egiten duen pertsona batek enpresa bat... Badago zer galdetu eta zer erantzun, eta horretan aritzen gara. Azkenean, ezagutza sortzea da. **Zer nahiago duzu ikerketa edo irakasle lana?**

"BADAGO ZER GALDETU ETA ZER ERANTZUN; AZKENEAN, EZAGUTZA SORTZEA DA"

"UNIBERTSITATEA DEFINITZEN DUEN ZERBAIT IKERKETA DA; HORREK BEREIZTEN DU"

Bi lanak lotuta dauden lanak dira, nahiz eta desberdinak izan. Ikerketa lan bat egiten dugunean sortzen dugun ezagutza hori gelara eramaten saiatzen gara. Ez dakit bat aukeratuko nukeen. Ikerketa asko gustatzen zait; unibertsitatea definitzen duen zerbait ikerketa da, bestela beste ikastetxe bat bezalakoa izango litzateke. Hori da bereizgarritasuna, horrek bereizten du unibertsitatea. Beste aldea ere oso interesgarria da, eta beharrezkoa. Sortzen dugun ezagutza hori besteei pasatzeko nahia eta joera dugu. Nola egin daiteke hori? Modu bat klaseen bidez da.

Ikasleek behar hori jasotzen dute?

Aurrekoan lankide batek esan zidan: "Bi ikasle bereizten ditut: ikastera datozenak eta bakarrik gaintitzera datozenak". Hori nabaritzen da. Ikasi eta irakatsi prozesu horretan bi elementu daude: irakatsi nahi duena eta ikasi nahi duena. Bietatik batek ez badu nahi...

Ikerketa lan asko egin dituzu, aldiak garrantzitsuenetan publikatu dituzu eta atzerrian ere ikertzaile izan zara.

Bai, jendeak ez ditu aldiak garrantzitsuak dira. Garai horretan doktoretza egiteko ikastaroak egin behar ziren, tesia egiteko. Bi lagun geunden, eta departamentuko katedradunak esan zigun ea zergatik ez gindoazen Madrilgo Carlos III. edo Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitateetara, bertako doktoretza programa zorrotzagoa zelako, atzerriko jendea zegoelako... Gazteak ginez, zergatik ez? Carlos III.en hartu gintuzten, eta beste mundu bat zabaldu zitzaigun. Mundu osoko jendea zegoen, baita irakasleak ere. Klaseak ingelesez ziren. Momentu horretan Luis Gomez Mejia Errepublikan Dominikarrek jatorria duen baina oso gazte zela AEBetara migratu zuen irakaslea egonaldi bat egiten ari zen Madrilen. Arizona Stateko irakaslea zen, akademia gizon oso ezaguna. Nire tesia nork zuzenduko zuen aukeratu behar nuen, eta berari proposatu nion.

EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Martin Larraza Kintana Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore ordea.

Esan zidan AEBetara itzultzen zirela eta ea berarekin joan nahi nuen. Bekak joateko aukera ematen zidan, eta hasieran hiru hila-beterako zena urte eta erdi izan zen. Oso aberasgarria izan zen; pertsonalki interesagarria eta profesionalki funtsezkoa. Kanpotik ikusita, gure mundua pixka bat celebrea da.

Orain, zein da zehazki zure lana?

Ekonomia, Plangintza eta Estrategiako errektoreordea naiz. Ekainaren 2an kargua hartuko dugu eta izendapena aldatu behar diogu: Kalitatea, Ekonomia eta Estrategia. Hiru arlo horietan lan egiten dut eta laugarren bat ere badut, Tuterako kanpua, estrategiaren barruan sartzen dena. Ekonomiaren arloan arduratzen gara, gerentearekin eta ekonomia zerbitzuarekin, unibertsitateko aurrekontuaz. Plan estrategiakoa ere nire ordezkartzatik egiten da. 2019an orain arteko plana egin dugu eta orain berria egingo dugu: zuzendu, indarrean sartu eta jarraipena egin. Zeharkakoa den beste gai bat analisia eta programazioa da; unibertsitateko datuen eta informazioaren kudeaketa. Kalitateari lotutako prozesu guztiak ere nire errektoreordezkartzatik egiten dira. Lan hau ez dut nik bakarrik egiten, noski. Administrari bat eta arlo bakoitzean bost bat pertsona egoten dira. Nik bi laguntzaile ditut: Monica, plangintzako alorreko zuzendaria eta Ignazio, Tuterako kanpu-

seko alorreko zuzendaria, bertatik bertara lan egiten duena.

Nola iritsi zitzazun aukera?

Gonbidapena erabat sorpresa izan zen. Aurreko hauteskundeetan bi hautagai egon ziren: Ramón eta María José Beriain. Ramonek irabazi zuen. Egun batean nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan. Gutxi ezagutzen nuen, kudeaketan ibilia nintzen, selektibitatearen zuzendaritzan, baina unibertsitatea oso handia da eta ni ekonomiakoa naiz eta bera ingeniariakoa. Ez dugu bat egiten. Taldea osatzen ari zela esan zidan eta errektoreorde sartzeara proposatu zidan.

Asko pentsatu zenuen?

Eznekiela zer esan gelditu nintzen. Galderaren bat egin eta pentsatuko nuela esan nion. Etxean ere komentatu behar nuen, aldaketa bazelako. Ez zegoen nire ibilbidean edo planifikazioan, baina momentu onean iritsi zitzaidan katedra justu atera berria nuelako. Ibilbide akademikoaren azken pauso horretan nengoen, eta horrelako zerbait probatzeko momentua zen. Egunero ez dizute horrelako zerbait eskaintzen, eta nahiko saltseroa eta kuriozosa naizenez, animatu nintzen. Zure ustez onerako diren gauzak egiteko aukera gehiago ematen dizu, nahiz eta gero trabak egon. Erronka hor zegoen. Lana eta exigentzia bada, baina ez naiz damutzen. Ramónek jarraitu nahi zuen eta bakarrik aurkeztu da. Pandemiarekin ez dugu astirik izan gauza asko bu-

katzeko, eta lege berriarekin al daketa sakona dator. Jarraitu nahi baguen jarraitzeko aukera genuela esan zigun. Zuzendaritza talde oso indartsua dugu.

Katedratikoa zarela esan duzu, zer esan nahi du horrek?

Unibertsitateko ibilbide profesionalean kategoriak daude; enpre-setan lehen mailako ofiziala, bigarren mailakoa, espezialista eta abar. Batetik bestera aldatzen da, baina orain, gutxi gorabehera, irakasle laguntzaileak daude, gero funtzionario izan aurretik finko egiten zaituzte, doktore kontratatua eta hurrengo titularrak izatea da. Goi mailan katedratikoa izatea da.

Zeintzuk dira unibertsitatearen erronkak?

Aldaketa handiak datoz. Marko juridikoaren aldaketa izan da, eta hainbat gauza egokitu behar dira. Horrekin lotuta langileen egonkortzearen kontua dago, eta horretan murgilduta dago unibertsitatea. Erregelamenduak eta estatutuak egokitu behar dira, eta era berean bide eta aukera berriak sortzen dira. Eztabaida tartea ere zabalduko da. Datozen bi urteak oso mugituak izango dira. Aurretik genituen proiektuekin aurrera jarraituko dugu; eskaintza akademikoan gradu berriak sortu ziren eta azken urteetan finkatuta gelditu dira. Orain gradu ondokoak definitzen joan gara. Geroz eta ikasketa gehiago eskatzen dituzte ere. Unibertsitatearen eta gizartearen

konexioa ere landu behar da, eta horretan ari gara. Bestetik, Europa mailan ere aldaketak izaten ari dira; Unibertsitate Europarrak deitzen direnak. Europar Batzordeak bultzatutako prozesu bat da, non unibertsitateen arteko epe luzeko harremanak edo taldeak bultzatzen diren. Gu orain sartu gara, aurretik Espainiako, Frantziako bi, Italiako eta Portugaleko beste bat zeuden. Komisioak egiten dituen hainbat funtsa horretara bideratuta daude, elkarlanean proiektuak egiteko. Esaterako, gradu bat Torinoko eta Pauko unibertsitateekin sortzean datza. Aukera bat eta erronka bat da. Igo beharreko tren baten modura ikusten genuen. Dena gara mugetatik gertu gauden lurraldeak eta lurraldearekin oso konprometitua.

Euskara betiko eztabaidagai bat izan da.

"CARLOS III.-GO DOKTORETZA PROGRAMAN BESTE MUNDU BAT ZABALDU ZITZAIGUN"

"KANPOTIK IKUSITA, GURE IKERKETA ETA AKADEMIA MUNDUA PIXKA BAT XELEBREA DA"

Ez dago nire arloan, baina esan daiteke aurrerapausoak eman direla. Euskararen plana egina dago, ahal den neurrian ikasketetan sartzeko. Esfortzu bat egin da eta geroz eta kreditu gehiago egin dira euskaraz. Planteatu genuen ea nondik hasi behar ginen. Non da beharrezkoagoa euskaraz jakitea? Jendeari zuzenduta dauden ikasketetan. Saia gaitetzen hor esfortzua egiten. Plana hortik doa. Geroz eta eskaintza gehiago dago, eskaria badago, aurre egiteko. Baina baliabideak daudenak dira, eta ez da erraza. Nik uste aurrera egingo duela. Plan estrategikoaren jarraipena egiten dugunean departamentuak etortzen dira eta denak adierazten dute euskaraz eman dezaketen irakasleak aurkitzeko zailtasunak dituztela. Orokorrean irakasleak aurkitzea ez da erraza; zaila da doktoretza egin nahi duten pertsonak aurkitzea. Orduan, euskaraz emango dutenak aurkitzeko zaila izaten dugu. Formula desberdinak probatzen ari gara.

Jendea ibilbide akademikoan sartzera animatzen duzu?

Ni sartu naiz, eta ez da erraza, baina bizitzan dena ez da erraza. Hasieran ibilbidea ez da oso argia, finantziarioa eta bekak daude... Unibertsitatean karrera egiteko aukera daude. Lana egin behar da, tesia egin, bukatu, eta horrek ere zailtasunak ditu. Dena dela, doktoretza bat egiten baduzu balio profesional bat ere izan dezake, ez da bakarrik unibertsitatean karrera egiteko.

Ikertzea gustatu behar zaizu.

Bai. Galderak egitea eta erantzuten saiatzea. Karrera horretan ere jendea bultzatzen dugu kanpora joateko. Nire esperientzia oso polita izan zen, eta jendea animatzen dugu.

Selektibitatea gertu dago, zer gomentio egiten dituzu?

Arlo hori kudeatzen nuenean eta galdetzen zidatenean esaten nien lasai egoteko. Batxilergoan asko eskatzen da. Nik orain etxean ikusi dut. Gainera, zerbait ikasketa garesti daude. Gehienbat osasun zientziekin zerikusia duten ikasketetan eskari handia dago, eta horrek nota igotzen du. Lan pila bat egin dute bi urtetan, beraz, lasai; selektibitatean ez dizute aurretik ikasi ez duzun ezer galdetuko. Jendea nekatuta egongo da, baina pare bat aste esfortzu txiki bat, eta aurrera.



ASTEKOA

AITZIBER CAMPION GANBOA

Modako ongizatea: tranpa indibidualista eta kapitalista

Gaur egun ongizatea modako joera bilakatu da. Etengabe esaten digute nola hausnartu, nola arnastu eta zer elikagai jan ongizate pertsonala lortzeko. Baina posible da ongizate hori lortzea antsietatea sortzen diguten erroko arrazoiei heldu gabe?

Ongizatearen industria zeharo errentagarria da; gure bizi-kalitatea hobetzeko produktuak eta zerbitzuak saltzen dizkigu. Errutina jakin batzuei jarraitzen badiegu eta produktu jakin batzuk erosten baditugu, betiko ongizate eta zorientasun egoera lortuko dugu. Baina ikuspegi hau erabat indibidualista eta kapitalista da, eta ez ditu aintzat hartzen gure ondorearen benetako arrazoiak.

Banakako konponbideak bilatzen irakatsi digute, ezinegon sortzen duten bizi eta lan baldintzak zalantzan jarri gabe. Gure antsietatea lasaitzeko meditazioa egiteko esaten digute, estresa maneiatzeko arnasketak eta ongi sentitzeko nolabait elikatzeke. Baina ez al dira antsietatea eta etengabeko estresa

POSIBLE DA ONGIZATE HORI LORTZEA ANTSIETATEA SORTZEN DIGUTEN ERROKO ARRAZOIEI HELDU GABE?

sistema honen berezko ezaugarriak?

Benetako ongizatea kolektiboa baino ezin da izan. Ezin dugu benetako ongizate-sentsaziorik lortu desberdintasuna eta bidegabekeria betiketoz dituen sistema batean bizi garen bitartean.

Ezin dugu ahaztu gure ongizatea berez dagoela lotuta besteen ongizatearekin. Ezin dugu hausnartu eta arnasa hartu milioika pertsonari eragiten dien desberdintasun soziala eta zapalkuntza alde batera uzteko. Ikuspegi kolektibo bat behar dugu. Aitortu behar dugu benetako zorientasuna denok aukerak, baliabideak eta bizitza duina izatean bakarrik etorriko dela.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eu

HARA ZER DIEN

Landa eremuan duintasunez bizi

AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ PLATAFORMA

Pasa den larunbatean makro proiektuen mehatxupean gauden makina bat plataforma eta eskualde Gasteizen batu ginen Euskal Herria Bizirik-ek hots egindako manifestazioan. Hiriburuetan egoitza daukaten instituzio eta botere ekonomiko nagusiek AHT, gasbideak, errauskailuak, makro etxaldeak, aire sorgailu erraldoiak, eguzki baratza itzelak eta hauek sorturiko energia garraiatzeko autopista elektriko amaigabeak "oparitzen" dizkigute landa eremuan bizitzeko hautua egin dugunoi.

Sistema honek eragin duen aldaketa klimatikoari aurre egiteko aitzakian, kapitalismoaren logika berberari

jarraipena eman nahi diote betiko suntsipenari "berde" adjektiboa ezarriz. Honela, diru publikoz sustaturiko makro proiektu pribatuek multinazional gutxi batzuei ikaragarriko etekinak emanen dizkiete landa eremuak geroz eta handiagoak diren hirien zerbitzura jarriz.

Sakanan, beste proiektu txikitzaileen artean Beriaingo magaletik pasarazi nahi dizkiguten bi autopista elektriko proiektuak dauzkagu. Ibilbide ia paralelo batean joanen liratekeen proiektu hauek Zaragozako probintzian haize errota eta eguzki plaken baratzen bidez sortuko litzatekeen energia garraiatuko lukete Gasteizeraino eta Gatikaraino, handik, itsaspetik Bordele aldera eramateko.

Hilabeteak daramatzagu bi proiektu hauen berri jakin gabe eta beldur gara, gelditzea lortu genituen aurreko bi

proiektuekin egin zuten moduan, ez ote dituzten udako opor egunak baliatuko proiektuak aurkezteko eta haien aurkako helegiteak eta aurkaritza zailtzeko. Hau bai jokabide parte hartzaile eta demokratikoa.

Planifikazio ezaren eta diru publikoen xahuketaren adibide garbiena da Etxarri eta Bakaiku artean eraikitzen ari diren ekoduktu edo natur pasa gunea. Autobia, Sakana zeharkatzen duen harresi garaiezina da basa abere askorendako. Hau pixka bat arintzeko ekoduktu bat eraikitzea erabaki du norbaitek. Beste batzuek, 400 Kv-ko bi autopista proiektatu dituzte ekoduktu honi itsatsirik. Eta besteren batzuek (ez ote jende berbera?) AHT proiektua sustatzen ari dira Sakanan barna, beste harresi garaiezin bat bilakatuko litzatekeena faunarendako ekoduktu garesti hori alferrikakoa bihurtuz.

GUTUNA

Javier Ollori gutuna

EIDER GARDE MAZKIARAN

NAFARROAKO 0-3 PLATAFORMAKO KIDEA ETA PILOTAJAJUKU KIROL ELKARTEKO IDAZKARIA

Joan den maiatzaren 9an, prentsako titular batek zioen Altsasuk 953.439 euroko superabitarekin itxi zituela 2022ko kontuak. Gastu orokorretarako udalaren diruzaintzako soberakina 3,5 milioi eurotik gorakoa dela. Alkate zaren aldetik, "oso irakurketa positiboa" egin duzu 953.439€ko superabita dela eta. Nirea, ez da zurea bezain positiboa.

Altsasuko herriak ez daki zuk ez diezula Txirinbulu

Haur Eskolako langileei ordaintzen, iaz, haur eskoletako langileen borrokari esker lortutakoa. Soldata duina lortu genuen, zuk ordaindu nahi ez duzuna, ikusita dirua egon, badagoela.

"Hau guztia kudeaketa arduratsu eta zuzurrari esker izan da" aipatu zenuen. Udal pilotalekua itxita izatea ez da batere arduratsua, ezta umeei frontoiaren alokairua ordainaraztea ere pilotan jokatu ahal izateko. Era berean, ez da batere zuzurra zure udal saneatuko kirol eskolak beren kostuaren azpitik finantzatzea, herriko klubaren kontura, eta zerbait gertatuz gero, azken horiek jan dezatela marroia.

Benetako gastuak estaltzen ez dituzten hitzarmen sistema ezartzea ere, ez da arduratsua.

Egiten ari zarene ez da udal baliabideak modu arduratsu eta zuzurrean kudeatzea, zure herriari bere eskubideak ukatzea baizik. Badirudi banku erakunde bat kudeatzen duzula, udal erakunde bat beharrean. Udal zuzur eta arduratsu batek bere herriari begiratu beharko lioke, bere ongizateari, bere bizi-kalitateari.

Udal langile batek dagokiona baino gutxiago kobratzen duen bitartean eta pribatuak balira bezala kudeatzen diren udal instalazioak audien bitartean, 3,5 milioi euroko soberakina zikina dago.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eu

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eu
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eu
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eu

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eu

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eu
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eu

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eu

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eu

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eu

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Koskobilo II kobako lanak bukatzeaz daude

Herritik kobarainoko ibilbidea seinaleztatu, kobarainoko bidea zabaldu, koba sarreran teilatua eta plataforma jarri eta kobari buruzko informazioa emanen duten panelak jartzen ari dira. Arkeologoen lana izan dute, eta izanen dute

OLATZAGUTIA

Erburua kiroldegitik 1,2 km iparraldera dago Koskobilo II arkeologia aztarnategia. Haren magalean Koskobilo IV dago, Ornako iturriaren inguruan. Mikel Markotegi etxarriarrak Aranzadizientzia elkarteak kideei haien berri eman zien 2019an eta orduz geroztik egindako indusketa kanpainetan arkeologia material ugari azaleratu dituzte, aparteko sona eman diotenak kobari eta Olatzagutiari.

Arkeologia aztarnategiaren garrantziaz jabetuta, Olatzagutiako Udalak, Aranzadizientzia elkartearekin batera, Koskobilo ingurua berreskuratu eta hari balioa emateko proiektua egin zuen. Horren ardatza Erburua kiroldegitik abiatzen den ibilbide bat da. Bidea seinaleztatzen duten baliza eta pintura arrasto berdeei jarraituz, olaztiarren eta bisitarien bertako balio handiko natura eta kultura ezagutzeko aukera izanen dute, ibilbidean zehar horien berri ematen duten bost panel izanen baitira.

Ibilbidea Koskobilo bi koban bertan bukatzen da. Bisitarien sarbide segurua eta estetikoa emateko, 25 metroko desnibela gainditzeko 150 metroko luzera eta metro bateko zabalera duen bidea zabaldu da, %16ko malda



Arkeologoak Koskobilo II koban indusketa egiten egon dira udaberrian. UDALA

izanen duena. Bidearen zoruan kaskailua jarri da. Pertsonak bai, baina animaliak ez sartzeko pasabidea ere jarri da. Kobaren sarrera parean plataforma bat izanen da. "Haren oinarrietako bat jartzerakoan arkeologia aztarnak agertu ziren eta, horregatik, lanak gelditu behar izan ziren, arkeologoen behar bezala aztertzeko. Lanak berez martxoan despeditu behar ziren, baina Nafarroako Gobernuari bi hilabeteko luzapena eskatu genion, eta heldu den astean despedituko dira egin beharreko guztiak",

azaldu du Joseba Vizuete Askargorta alkateak. Gaineratu duenez, "Aranzadiko kideek olaztiarren garagarrilaren 10ean aurkezpena egingen diete". Udalak ez du baztertu etorkizunean Koskobilo II kobarako igoera herriko intereseko beste puntu batzuk lotzen dituen (ahuntzetxea, burdin iturria...) homologatutako ibilbide labur baten barruan sartzeko. Koskobilo aztarnategiari balioa emateko proiektua finantzatzeko Olatzagutiako Udalak Nafarroako Gobernuaren 2022ko aurrekontuetatik 80.000 euroko dirulagun-

tza zuzena jaso zuen, PSNren eta EH Bilduren zuzenketa bati esker.

Indusketa, harrobia eta beste

Udaberriko egonaldi horretaz aparte, arkeologoak udan, atzera ere, arkeologia indusketa egitera bueltatuko dira Koskobilo II kobara. Alkateak jakinarazi duenez, "arkeologoak garagarrilean hasiko dira lanean, eta, gutxienez, bi hilabetez han izanen dira". Kobazuloan arkeologia indusketa egiteaz aparte, Aranzadikoek aurten beste egiteko bat izanen dutela jakinarazi du Vizuete: "kobaren gainean harrobia dago eta hura lehengoratzeko proiektua dago. Lan hori egiten denerako, han zer interpretazio edo informazio jarri daitezkeen aztertuko dugu Aranzadikoekin batera". Aurtengo lanek 100.000 euroko aurrekontua dute eta Olatzagutiako Udalak Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatuko dio.


Harrobiaren lehengoratzearan inguruan, alkateak jakinarazi du Nafarroako Gobernuaren erantzunaren zain "urte pasa" daramatela. "Cementos Portland Valderrivas da harrobiaren jabea eta hura lehengoratzeko proiektua aurkeztu zion foru administrazioari. Alegazioak aurkeztu genizkion eta onartuak izan ziren. Baina proiektua gauzatzeko gobernuaren azken baimenaren zain dago enpresa". Vizuete azaldu duenez, "harrobiko plazan dauden hondakinak kenduko dira, belarra erein, zuhaitzak landatu eta hesi txiki bat jarriko da. Gainera, harrobiko plaza guztian zehar ibiltzeko bide bat egingen da". Enpresaren egitasmoaren arabera lanek urtebete iraun zezaketen. "Baina litekeena da hor ere aztarnak agertzea", gaitzatu du alkateak.



Lurra mugitu dute lehenik.

Araztegia berritzen hasiak dira

Nilsa enpresa publikoak Olatzagutiako araztegia berritzeko lanak ACS Ari eman zizkion 1.898.967 euroren (BEZ kanpo) truke. Kisugileak apirilko azken astean hasi ziren lanean. Olatzagutiako ur zikinak jaso eta garbitzen dituen araztegiak 30 urte ditu. Nilsak 2005ean eta 2015ean erreformak egin zituen, baina gero eta ur gehiago garbitu beharra duenez, azpiegiturak eguneratzea erabaki zuen. Araztegi berriak ur zikinak 15,63 litro segundoko emaria tratatu ahalko du batz bestea, 1.350 metro kubiko eguneko. Gehienez ere 46,9 litro segundoko hartzeko gaitasuna izanen du. Lanak egin bitartean arkeologoak haien jarraipena egingen dute, Koskobilo IV bertan baita.



ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

ALTSASU
678 323 403
• Irura Hiribidea, 48
948 468 026
Zumalakarregi Plaza, 3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19

UIHARTE-ARAKIL
691 83 41 36
• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ
• Postas, 33
945 148 368
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ
948 461 660
• Kale Nagusia, 4

OLAZTI
948 468 755
• Orreaga Kalea, 1

ARAIA
945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3

Herriko gazteak elkartzeko tokia

55 urte pasa dira Arbizuko gazte talde batek udalari elkartzeko eta asanbladak egiteko toki bat eskatu, eta Argi Bidea elkarte sortu zutela. Bost hamarkada eta erdi hauetan arbizuar belaunaldi asko pasa dira. Urteurren ospakizun handia egingen dute

E.R.B. ARBIZU

1960ko hamarkadaren amaieran Arbizuko gazteek udalari lokal bat exijitu zioten. Gaur egungo Arbizuko gazteek azaldu dutenez, "espazio bat behar zuten eta udalari udaletxearen hondoko espazioa eskatu zioten, erabilerarik ez zuelako". Hasiara batean udalak ezezkoa eman zien, eta liskar gogorrek egon zirela dio hemerrotekak. Azkenean, 1968. urtean, udalak gazteei egoitza eman zien eta horrela sortu zuten duela 55 urte Argi Bidea elkarte. "Berezia eta pozgarria da duela hainbeste urte sortu eta oraindik bizirik egotea".

Arbizuko gazteendako erreferentzia esparru bat da gazte elkarte. "Aisialdi leku bat da, gazteak elkartzeko toki bat, baita adin desberdinetako gazteen artean harremanak egiteko tokia ere". Arbizuko Gazte Asanbladaren tokia ere bada, eta modu asanblearioan eta autogestionatuan kudeatzen dute. Asteazken zehar "erabilerak desberdinak" ematen diote elkarteari, eta ostiraletan, 18:00etan, asanblada egiten dute. "Gazteendako elkarte bakarra da, gero beste bat dago, baina guretako bakarra".

Bost hamarkada eta erdian Arbizuko gazte asko pasa dira, hamaika belaunaldi, eta bakoitzak bere aztarna utzi du bertan. Garaian garaiko 15 urtetatik 24 urte bitarteko gazteak elkartzeko Argi Bidean. Hamabost eta hogeitaz gertu artean elkartzeko toki bat, normalean bertan.

"Azkenean hori da pixka bat politena: etortzea eta jende zaharragoarekin edo gazteagoarekin harremanak izatea. Bestela, hirietan gertatzen

dena izango litzateke edo bakkarik zure adineko jendearekin izango genuke harremana". Adin desberdinetako jendearekin harremanak sustatzen ditu elkarteak, bertan adin desberdinetako kuadrillak elkartzeko baitira. "Kuadrillen arteko harreman asko egin dira horrela".

Hamabost urtetik aurrera sar daitezke arbizuarrak Argi Bidea elkartearen. "Blusa egiten dugun urtea, 15 urterekin egiten da blusa, kintotan, eta elkartearen sartzeko esaten dugu. Nahi duena sartzen da. Aurkezpen txiki bat egiten zaio, eta barna". Elkartetik atera baino, jendeak joateri uzten diola esan dute gazteek: "Adinagatik izaten da. Azkenean, gazte berri asko sartzen dira eta arraro sentituko dira. Elkartearen geroz eta gutxiago erabiltzen hasten dira eta azkenean uzten dute".

Ospakizunak

Arbizu Argi Bidea elkarterik gabe ez zen ulertuko. Herriarendako zenbait ekimen antolatzen dituzte urtero, esaterako, Olentzeroren kabalgata, pintxopoteak, sanjuanetako

ARBIZUKO GAZTEEK ESPAZIO BAT BEHAR ZUTEN ETA UDALARI ESPAZIO BAT ESKATU ZIOTEN

'ARGI BIDEA 55 URTE. IBILI ETA ERAIKI' LELOPEAN OSPAKIZUN "HANDIA" PRESTATU DUTE

festetan egun bat haien esku gelditzen da, haiek antolatzen dute festetako Gazte Eguna, eta neguan ere beste Gazte Eguna bat antolatzen dute. Urteaz zehar ere "hitzaldiren bat edo beste antolatzen dugu". Elkarte eta herria aktibo mantentzen saiatzen dira. "Lehen ere ikastaroak, tailerrak eta horrelakoak antolatzen genituen. Baina Covidarekin pixka bat gelditu da. Orain berriz ari gara".

Urteurrena modu "handian" ospatuko dute. *Arbi Bidea 55 urte Ibili eta eraiki* lelopean bi eguneko egitaraua antolatu dute. Gaur, maiatzak 26, ostirala, haurrendako jolasak eta txokolatada, bideo emanaldia eta argazki erakustaldia eta pintxopotea izanen dira, 18:30etik aurrera, eta biharko, maiatzak 27, larunbata, goizean Arbizuko dantza taldearen emanaldia eta trikipotea izanen dira, plazan, eta bazkaldu ondoren Sakanako Gazte Asanbladako kontzentrazioa, brindisa eta argazkia, eta, ondoren, kontzertuak izanen dira.

"Hasiara batean herriko taldeen kontzertua izatea nahi genuen: Zetak, Nafarroa 1512, Alerta Gorria eta Beietz. Elkartetik pasa dira, eta herrikoia egitea nahi genuen. Baina datarekin problemak zeudela eta ez genuen lau taldeak elkartzea lortu, eta beste talde batzuk lortu genituen". Herriko Pello Reparazen Zetak taldea eta Nafarroa 1512 taldeak ariko dira, Skabidean, Raimundo el Canastero eta DJ Fresa Morangorekin batera. Arratsaldean Skapaie elektrotxarangarekin kalejira izanen da ere. Zetak taldeak Arbizun emanen duen lehengo kontzertua izanen da. Kontzertuak plazan izanen dira.



Argi Bidea elkartearen egindako argazki zaharrak. ARGIBIDEA



**EGINGO
DUGU.**

Maite duzun Nafarroa



Geldiezinak!

**Euskara sustatu
eta errespetatu.**

*Hizkuntzaren
normalizazioa
bultzatu.*

Bozkatu

ehbildu



Pilar Goñi Ondarra, erdian eta txuriz, lagunez inguratuta. UTZITAKOA

Bakaikuko barnetegiak Pilar omendu du

Etxezainak erretiroa hartu du eta emandako guztiagatik merezitako aitortza jaso zuen

BAKAIKU

Zenbat Gara elkarteak Pilar Goñi Ondarra omendu zuen maiatzaren 13an. Ekitaldian lankideak, lagunak, familiako kideak eta bakaikuarrak izan ziren. Lankide eta lagunek esker oneko testua irakurri zuten, dantzariak Goñiri aureskua dantzatu zioten. Gainera, egunerako propio prestatutako bertsoa kantatu zioten. Argazkiak ez ziren falta izan. Goñik oroigarria eta lore sorta jaso zituen. Bakaikuko abesbatzak omenaldiari doinua jarri zion. Elkarteko kideek azaldu dutenez, "luze jo zuen egunak, eta inguruko berotasunak hauspotuta, ekitaldi egun gogoangarria izan zen, bertaratutakoen gozagarri".

Goñik "hamarkada luzea egin du Doneztebenea etxean lanean, baina langile nekaezinari heldu zaio ondo merezitako erretireta hartzeko ueña". Goñik irakasle eta ikasleekin harreman estua

izan du, eta denetariko izendapenak jaso dituela jakinarazi dute elkartetik: ama, amama, psikologo, irakasle, sukaldari, garbitzaile, laguntzaile, erizain, sekretuen eta konfidentzien gordailu... Elkartekideek adierazi dutenez, "lan, lan eta lan, besterik ez du ezagutu Pilarrek bizitzan. Gorputzean ezin kabituzko bihotz handiko emakume sutsua, indar betea eta irribarre konplizea darion Angoia auzoko bizilagun ilustrea, bizitzaren joan-jinean Juan Mari bikotearekin batera 'tandem' goxoa osatu duena". Azaldu dutenez, "langintza eta ofizio guztiak bere gain hartu izan ditu. Bisitari eta turisten zaintzaz arduratu da eta beti izan du laguntza hitza akzioan, ekintzan. Umore betean, irribarre etengabekoan". Hala ere, Goñi ez dute urruti irudikatzen, "Pilar gure familiako kidea ere badelako".



Ondatz Bide frontoian hitza hartzen lehena Pilar Seguin izan zen.

Otxoa de Olza alpinista Unanun omendu zuten

Beriain magaleko monolitoan lehenik eta Unanun ondoren, ekitaldi bana egin ziren. Bildutako dirua Makaluko Ospitalera bideratuko da. Mendizalea Annapurnan hil zela 15. urte bete ziren asteartean

UNANU

Mendizalearen heriotzaren urteurrenaren bezperan, Iñaki Ochoa de Olza Sos Himalaya fundazioak ekitaldia antolatu zuen Unanun. Hasteko Beriain mendira igoera jendetsu bat izan zen, Otxoa de Olzaren entrenamendu zelaia izan zena igoz. Beste talde batek mendi magalean dagoen oroitarirantz jo zuen. Han bi taldeek bat egin zuten. Pablo Otxoa de Olzak, fundazio presidentea eta Iñakiren anaiak, bere erreskate saiakerak piztu zuen elkartasuna gogoratu zuen, eta olatu hark fundazioaren bidez indarrean dirauela nabarmendu zuen. "Gaur, duela 15 urte, Iñaki denda batean zegoen, 7.400 metroko altueran. Familiak ez genekien zer nolako dimentsioa izango zuen horrek guztiak. Ez genekien Iñakik zenbat lagun zituen ez genekien nahiko, ezta zein kalitatekoak ere. Eta orain honela esan dezaket: gure adiskide horiek, urrea balio dutenak, heredatu ditugula".

Unanuko Ondatz bide pilotalekuak hartu zuen bigarren omenaldia, Atarrabia Abesbatzak girotu zuena. Bertan, Pilar Seguin, Iñakiren amak fundazioa laguntzen duen jendeari eskerrak eman zizkien. "Gogoratu nahi dut zein garrantzitsua den inguru eta mendi hau Iñakirendako. Ehunka aldiz Himalayarako prestatzera etorri zen hona. Baina, horretaz aparte, mendien edertasunaz eta aurkitzen zituen pertsonen gozatzerara. Hemen etxean bezala sentitzen zelako", nabarmendu zuen.

Ekitaldia baliatu zuten fundazioaren proiektua zabaltzeko eta proiektuetarako dirua biltzeko lan egiten duten pertsonak: Martin Montañes, Nafarroako Men-

"IÑAKI HEMEN ETXEAN BEZALA SENTITZEN ZEN, MENDIEN EDERTASUNAZ ETA PERTSONEZ GOZATUZ"

di eta Eskalada Federazioko presidentea; Aitor Etxarri, azken urtean Nepalen lan egin duen praktiketako ikaslea; Javier Gonzalez, Rocopoliseko zuzendaria eta fundazioko kolaboratzailea; Julio de Iñigo eta Reyes Leoz, boluntarioak eta Josetxo Inbuluzketa eta Jorge Nagore kazetariak.

Egitaraua 180 pertsonarendako herri bazkariarekin eta La Banda del Desague taldearen kontzertuarekin despeditu zen. Lortutako dirua Makaluko Ospitaleko proiektua despeditzeko balioko du. Makalu, Nepalgo haraneko 20.000 pertsona artatuko ditu. Gaur egun, baldosak jarri ondoren, proiektu hori azken fasean dago. Azken horren baitan langile finkoen kontratazioa eta ekipoak erostea dago. Ekipamenduei dagokienez, Iruñeko Salestarren ikasleek egindako inkubagailu sehaska jarri ditu. Laster Galdakao eta Zaragozatik jasotako bi elektrokardiografo bidaliko dira.

FLORES S.L.
Utubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

TX TXARTEL
www.txartel.net
Kontsumitzen dugun energia elektrikoa zuri berrizlagarritatik dator eta erobiltzen dugun papera baxo irabazkorrakoa da

Pertsona zaurgarrien etxean zuntza jartzeko bidea

Nafarroako Gobernuak Internet urte betez kontratatuko Bonu Digitala eskaintzen du

SAKANA

Konektibitateari lotutako arrakala digitala murrizteko, Nafarroako Gobernuak kolektibo zaurgarri bideratutako dirulaguntza deialdia egin du, haren bidez Bonu Digitalak eskuratzeko. Deialdiaren helburua da etxean zuntz optikorik ez duten pertsonen banda zabaleko linea berri baten kontratazioa finantzatzea. Foru administrazioak 240 euro dirulaguntza emanen die. Hala, hileroko faktura 20 euro merkaturako zaie. Gobernutik jakinarazi dutenez, familia unitate edo helbide bakoitzean Bonu Digital bakarria eskatu daiteke. Bestetik, zerbitzua gobernuaren programarekin bat egin duten Euskaltel edo O2 operadoreekin kontratatuko beharko da.

Laguntza jasotzeko zenbait betebeharrak daude. Alde batetik, errenta jakin bat izatea: eskatzaile bakarria bada 12.720 euro baino gutxiago izatea, biren kasuan 15.792 euro, hiru badira 17.988 euro, lau familia unitateak errenta 19.308 baino gutxiago izatea, bostekoan 20.628 euro eta sei edo gehiagoren kasuan 21.504koa. Eskatzaileen helbide fiskalak Nafarroan egon behar du. Gainera, eskatzaileek honako irizpideetako bat bete beharko dute: ikasle bat izatea edo hurrengo ikasturtean izatea, Nafarroa Abentura Digitala kanpainako ikastaroaren ziurtagiria izatea, zaurgarriak diren emakumezkoen taldekoa izatea, 65 urtetik gora izatea edo familia ugari bateko kidea izatea.

Eskaera egiteko www.bonodigital.navarra.es webgunea edo herritarren arretarako edozein bulegora jo daiteke. Irailaren 1era arte eska daiteke, edo izakinak bukatu aurretik. Informazioa nahi duenak gobernuaren 848 425 561 telefono zenbakira hots egin edo bonodigital@navarra.es helbidera idatzi dezake.

Arruazun estalperako dirulaguntzaren zain

Nafarroako Gobernuak deialdia ebatzi zain dago Arruazuko Udala. Bitartean udaletxe barruko espazioak nola eta zertara bideratu aztertzen ari da. Aurtengo aurrekontuko inbertsio nagusia basoan angioa egitera bideratutakoa da

ARRUAZU

Arbazuarek herriko estrategia planean zehaztu zituzten ardatzetako bat espazioa da. Plana egiterakoan arbazuaren premietako bat estalpe bat zen. Arkitektoek proposamena ere egin dute. Lanak egiteko Arruazuko Udalak "Nafarroako Gobernuak dirulaguntza deialdia ebatzi zain gaude", azaldu du Gorka Ovejero Ganboa alkateak. Inbertsio handia izanen denez, gobernuaren Askatasunez Zehazteko programatik udalak hiruzpalau urtetan jasoko duen dirua estalpea egiteko gordeko dutela jakinarazi du alkateak. Aurten 19.087,20 euro izan dira.

Barne espazioen eskaera ere jaso zen Arruazuko Estrategia Planean. Besteak beste haurrendako eta gazteendako txokoa, gimnasioa, liburutegi-proiektzio gela... Horretarako arbazuarek begiz jo zituzten herriko itxaren lehen solairuari eta ganboikoari erreparatu zieten. Irisgarritasuna bermatuta dago, joan zen urtean igogailua jarri zelako. Espazioen berrantolaketa egiteko hainbat ideia daude udalean eta haiek nola gauzatu aztertzen ari dira.

Arruazuko Udalaren aurtengo aurrekontuan 207.925,73 euroko sarrerak eta 149.626,82 euroko



Arruazuko estalpearen zirriborroa. Herriko itxaren eta elizaren artean legoke.

gastuak jaso dira. Inbertsioetarako 38.991 euro daude jasotakoak. Ovejero azaldu duenez, basoan azienda egoteko angio edo itxesia egiteko lanei segida emanen diete aurten. "Sakanako Mankomunitatearen ur sareari hartunea egingen diogu Lakuntzan eta handik ura baltsa batera eramaten dugu, aziendak edateko ura izan dezan".

Egiteko gehiago

Udalak herriko Alde Zaharrerako Esku hartze Plan Globala egiteko asmoa du. "Horren bidez

etxebizitza zaharberritzen dutenek dirulaguntza handiagoa eskuratzeko aukera izanen dute", azaldu du alkateak. Horretarako, Nafarroako Gobernuarekin harremanetan daudela azaldu du alkateak. Eta harreman horien ondoren atera da mahai gainera herriko Hirigintza Plana. "Indarrean dagoena 1991koa da. 2009an berritzen hasi, 2012an uholde arriskuagatik izoztu eta 2014an atzera bota zuen gobernuak. Plana berritzeak berezi duen edo ez aztertu beharko dugu", gaineratu du.

Bestetik, udalak Larrialdi Plana egin du eta hura indarrean jarri beharra du. "Larrialdi Bartzordea osatu beharko dugu. Eta, horrekin batera, larrialdi kasurako sirena jarri, telefono mugikorren bidez larrialdi egoeraren berri emateko zerrendak osatu beharko ditugu eta uholde kasuan arbazuarrak nora mugitu beharko diren jakinarazi beharko dugu", azaldu du Ovejero.

Kontsultategia

Arruazu Irurtzongo Osasun Eskualdearen zati da. "Pandemiaz geroztik mediku kontsultategia itxita dago. Aurretik ostiral eguerdian etortzen zen medikua", azaldu du Ovejero, eta gaineratu du: "medikuak nahiago du bizpahiru pertsonarekin kontsultategian egon baino zuzenean deitzen dioten etxeetara joan. Zerbait larria bada, jendea Uharteko Arakilgo kontsultategira joaten dela, ez zuela ostiralera arte itxaroten esaten du. Horregatik, nahiago du etxeetara joatea kontsultategian egon baino. Hala egiten du, edozein unetan etortzen da. Herrian oso pozik gaude egiten duen lanarekin".

Baina egoerak udalean zantza sortzen du. "Alde batetik, estrategia plana egitean jendeak kontsultategia zabalik mantentzea nahi zuen. Bestetik, lokalaren mantentzea urtean 6.000 euro dira. Medikua aurten jubilatuko da, eta berriak nola lan egingen du?" Alkateak azaldu duenez, "Uharteko Arakilgo kontsultategiak gero eta zerbitzu kaxkarrago ematen du: medikuak oporrak hartzen baditu Osasunbideak ordezkoko jartzeko egun bat edo bi behar izaten ditu. Uharteko Arakilgo kontsultategia mantentzea ziurtatu beharra dago", gaineratu du.

PORTUKO

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

www.promocionesamayna.com

IRURTZUN BERRI

948 071 935

xapatero
taberna

Etxeko krocketak eta bokatak

948 460 162 · Etxarri Aranatz



Lizarragako hauteskunde mahaia 2019ko udal, kontzeju eta foru hauteskundeetan. ARTXIBOA

Hirugarren hautetsontzia

Boto paper berdeak jasotzen ditu, kontzejuetako hauteskundeetakoak. Nafarroako Parlamenturako eta udal handietako hauteskunderen aldean, herri horietan zerrendak ez dira itxiak. Eta haiek eratzeko batzarrak egiten dira herrietan aurretik

DUELA 25 URTE...



Unanu elkarterik gabe

Neguan Denok Bat elkarteko tximiniak su hartu zuen eta handik zabaldu zen. Unenuarrak ia elkarterik gabe gelditu ziren. Garrek sortutako kalteak konpontzeko astebururo auzolanak egiten ari ziren. Baina lan batzuk eraikuntza enpresa batek egin zituen. San Pedro festetarako lanak despedituta nahi zituzten eta, horregatik, gogo handiz ari ziren lanean. Elkartean aurreko obra 1991n egin zuten, goitik behera zaharberritu zutenean. 114 bazkide zituen.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Hauteskundeetan aukeratu beharreko hautetsi kopurua zehazterako garaian aurreko urte hasierako biztanleria kontuan izaten da. Ekaik 37 biztanle zituen. Hauteskunde araudiari segituz, 50 biztanle baino gutxiagoko herriek kontzeju irekia osatzen dute. Hau da, kontzeju irekiko presidentea aukeratuko dute igandean, horregatik, boto paperean izen bakarria agertuko da. Ekairen kasuan Patxi Uhartek Garrarena.

Baina bere izena boto paperean iritsi aurretik, herrian batzar bat egiten da. "Duela bi hilabete deitu nuen eta galdetu nuen norbaitek ardura hartzen interesa ote zuen. Batzar horietara lehen etxe bakoitzeko ordezkari bat joaten zen. Gaur egun errolatutako guztiak joan daitezke. Baina inork ez zuen ezer

esan". Beraz, Arakilgo Udalaren laguntzaz Uhartek hautagaitza aurkeztu zuen (udalean 12 urtez zinegotzi izana da). Bigarren legegintzaldia jarraian egingen du Ekaiko kontzeju irekiko presidente gisa.

Bere aurretik Jesus Angel Ongai Sanz izan zen presidentea, 12 urtez. "Nik 14 urte neramatzan kontzejuko buru izaten, azkene-ko biak behin behinean eta norbaitek ardura hartzeko eskatu nuen, bestela, kontzejua deuseztatuzko prozesua abiaraziko nuela, ardura udalaren esku uzteko. Ongaik hartu zidan lekukoa, baina dozena bat urte egon zen bera ere". Aurreko eta oraingo aldiarekin Uhartek Ekaiko kontzeju irekiko presidente gisa 18 urte daramatza, eta hastear den legegintzaldia despeditzean 22 izanen dira.

Uhartek azaldu duenez, "errolatutakoa edo jende nagusia da, edo Iruñean bizi dira. Ezin dute arduratu. Beraz, hautagaitzarik ez dagoenez segitzen dugu. Ongai eta bion artean ahalik eta hobekien kudeatzen saiatu gara". Uhartek duela 16 bat urte jarri zuen mahai gainean kontzejua desegiteko aukera, berak nahiko ez lukeena. "Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea da. Herritik kanpo erakunde batetik baino hobe ikusiko dira dauden arazoak", azaldu du. Kontzejuak herri lurrak, argiteria publikoa, hilerria eta bideak kudeatzen ditu. Eta beste ezaugarri bat

20

HAUTESLEKU

Sakanan barna 20 hautesleku zabalduko dira igandean eta haietan 32 hauteskunde mahai eratu dira.

3

HAUTETSONTZI

Arakilgo bi hauteslekuetan, eta Ergoienako eta Lizarragabengoko banatan egonen dira, kontzejuak berri behar direlako.

121

ZINEGOTZI

Udal hauteskundeetan aukeratuko diren zinegotziak. Aurkeztu diren 27 hautagaitzak 264 pertsonaz osatuta daude.

55

PRESIDENTE ETA BOKAL

Kontzejuetako hauteskundeetan aukeratu beharreko presidente eta bokalak.

6

UDAL

Sei udaletan hautagaitza bakarria aurkeztu da. Alkatea zein izanen den badakite: Arakil, Irañeta, Lakuntza, Arbizu, Bakaiku eta Urdiain.

2.

DEIALDIA

Toki hauteskundearen bigarren deialdia egingen da eta, hautagaitzarik aurkezten bada, Iturmendiko Udala eta Zuhatzuko Kontzejua udazkenean berritzeko aukera izanen da.

27

KIDE

Sakanako Mankomunitateak dituen kideak. Hauteskundearen ondoren udal bakoitzak bere ordezkariak izendatuko ditu.

96

SAKANDAR

Hauteskunde mahaietako kideak izanen dira, haietako 32 lehendakari eta gainontzeko 64ak bokalak.

08:00

ETAN

Mahaikideak eta haien ordezkariak hauteslekuan ordu horretan egon behar dute igandean. Mahaia eratu ondoren, ordezkariak joan daitezke.

09:00

-

20:00

Hauteskunde mahaiak ordutegi horretan egonen dira zabalik eta herritarrek bitarte horretan eman dezakete botoa.

ere nabarmendu du: "kontzejua erakunde bakarra da zeinetan beharrezkoa den herrian erroldatuta egotea ardura hartzeko. Udaletan hori ez da gertatzen, edonon bizita ere zinegotzi izan zaitezke". Bestetik, Uharteko pozik dago batzarrek duten asistentziarekin: "lehen lauzpabost elkartzin ginen, orain 12-14 gara, eta jendea kontzejua kontuen jakitun dago".

Kontzeju koxkorragoak

Presidenteak eta lau bokal aukeratuko dituzte 50 eta 999 biztanle arteko kontzejuetan igandean. Erroldatutako 168 herritarrekin, Lizarraga hor sartzen da. Hango kontzeju burua da Unai Navarro Aristorena. Argitu duenez, igandeko bozketak baino lehen beste bat egin dute herrian kontzejurako hautagaitza aukeratzeko. "Duela hilabete eta erdi egin genuen eta berrogei bat pertsonen parte hartu zuten".

Navarro azaldu duenez, "bozketak horretan erroldatutako lizerratar guztiak gara hautagaiak. Herritar bakoitzak bosten izen-abizenak idatzi behar ditu. Zenbaketa egiten da eta inor behartzen ez bada ere, zerrandan agertzen direnak bete behar gisa hartzen dute". Hala ere, lehendabizikoetatik hasita urren-urren galdetu egiten die kontzejuan sartu nahi ote duten eta bostek baiezkoa ematen dutenean, haiekin osatzen dute kontzejuko hauteskundeetarako boto papera.

Kontzejuko presidentek esan duenez, "boto paperean bost izenak agertzen dira eta gogokoenen aldamenean X jarri behar da igandean, lau gehienez. Normalean jendeak denon alde egin dute. Hala ere, boto gehien duena ez da alkate aterako. Bosten artean erabakiko dute". Jakinarazi duenez, 2019an hauteskunde eguna baino lehen berak bazekien kontzejuko presidentea izanen zela, "bestela ez zelako inor aurkeztuko. Aurtengo asmoa, uste dut, urtero ardura aldatzea dela", azaldu du. Dagoeneko haiekin pare bat aldiz elkartu dira eta, azaletik bada ere, zein gai dauden azaldu die. Kargu hartzeak eta festak, denak bat egin duenez, ospakizunak pasa ondoren egingen dute hautetsi berriei guztia zehatz-mehatz azaltzeko bilera. Lizerratarren artean kontzejua desagerteko aukera ez da sekula

mahai gainean egon. "Orain arte beti izan da kontzejurako hautagaitza. Oraingoz, gero ez dakigu zer gertatuko den", azaldu du Navarrok.

Udal txikia

Populazioak udalaren zinegotzi kopurua zehazten du. Gainera, hauteskunde sistema udalaren biztanleriaren arabera aldatzen da. 101 eta 250 biztanle arteko herriei bost zinegotzi dagozkie. Herri horietako hauteskunde sistema nolakoa den jakiteko Irañetako alkate izandako Ainhoa Beraza Maizarengana jo dugu, Irañetak 168 biztanle baititu. "Inor boluntario atera ez zenez, udalak etxe etxe paper bat banatu zuen duela hilabete eta erdi. Bakoitzak bi pertsona proposa genitzake. Oso jende gutxi egin zuen proposamena, 25en batek".

Udalak paperak jaso eta haietan hamar bat pertsonaren izen-abizenak agertzen ziren. "Guztiak elkartu ziren eta zerranda sor zitekeen aztertu zuten. Azkenean, bost prest agertu ziren udalean lan egiteko, eta haiekin osatu da igandeko boto papera", azaldu du alkate ohiak. Irintarrek bost izenen artean lau markatu behar dituzte. Boto gehien lortzen duena izaten da alkate herri batzuetan, "baina, uste du bosten artean erabakiko dutela zein izanen den alkate", azaldu du.

Berazak gogoratu du duela lau urte ez zela inor prest agertu udala berritzeko. Beraz, alkatea jardunean aritu zen udazkenean, atzera ere, deialdia egin arte. "Orduan boluntario aurkeztu ginen eta zerranda osatu genuen. Boston artean denbora gehien zuena ni nintzenez, ni aukeratu ninduten alkate, baina nik ez nuen nahi. Joan den urtean arrazoi pertsonalengatik utzi behar izan nuen", azaldu du Berazak. Aurkeztu ez balira Nafarroako Gobernuak udalerako kudeaketa batzordea izendatuko luke. Alkate ohiak azaldu duenez, "pozik gaude jendea aurkeztu delako".

KONTZEJUAN ARDURA HARTZEKO BEHARREZKOA DA HERRIAN ERROLDATUTA EGOTEA



Arakilgo azken zazpikoa?

Udalek dituzten zinegotzi kopuruak haien populazioaren arabera da. Biztanlerian aldaketarik izanez gero, gerta liteke udaleko zinegotzien kopuruak gora edo behera egitea. Aurtengoan ez baina hurrengo udal hauteskundeetan Arakilgo Udalak zinegotzi kopuru handiagoa izan dezake. Joan den urte hasierako erroldaren arabera erabaki dira aurtengo udal hauteskundeetan aukeratu beharreko zinegotzi kopurua. Arakilen kasuan joan zen urtean 967 herritar zituen ibarrak. 251 eta 1.000 biztanle dituzte, Arakilgo Udalak zazpi zinegotzi ditu, eta horiek aukeratuko dituzte arakildarrek igandean.

Hauteskunde araudiaren arabera 1.001 eta 2.000 biztanle arteko udalek bederatzi zinegotzi dituzte. Oihana Olaberria Jaka alkateak jakinarazi duenez, Arakilen 1.004 pertsona zeuden erroldatuta apirilaren hasieran (537 gizonezko eta 467 emakumezko). Beraz, kopuru horri eutsiz gero, hurrengo udal hauteskundeetan Arakilgo Udalak bederatzi zinegotzi litzuke. Aldi berean, Arakilek Sakanako Mankomunitatean ordezkari bat izatek bi izatera pasako litzateke, ibarreko erakundearen udal bakoitzaren ordezkariak populazioaren milako bakoitzeko bat baita. Udalean halako aldaketa izan duten azken udalak Lakuntza (1999an) eta Arbizu (2007an) izan ziren.

HAUTESKUNDE GAUA
GUAIXE.EUS-EN



UDAL, KONTZEJU ETA FORU HAUTESKUNDETAKO EMAITZEN JARRAIPENA

ZUZENEAN

guaixe

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 26

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota pala taldearen San Kiriko txapelketa: Naiara - Maialen / Anitz - Leire
15:45ean, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota pala taldearen San Kiriko txapelketa: Katixa - Iraia / Auritze - Nahia; Izadi - Ane / Onditz - Olaia;

Uxue - Laida / Auritze - Naroa; Nahia - Uxue / June C. - June L.; Iraia - June O. / Aizeti - Oskia.
17:45ean, frontoian.

HIRIBERRI ARAKIL Topaketa.

Topaketa gastronomiko-kulturalak: Souad Essaouik prestatutako arabiar janaria.
18:00etan, Txitera elkartearen.

ALTSASU Erremonte jaialdia.

Erremontari Heriz Herri txapelketaren jaialdia.
18:00etan, Burunda pilotalekuan.



LAKUNTZA Erakusketa mustutzea.

Artea Oinez Nafarroa Oinezaren harira antolatutako erakusketaren mustutze ekitaldia, Andra Mari Ikastolak antolatuta.

18:30ean, kultur etxean.

ARBIZU Argi Bidea elkartearen 55. urteurrena.

18:30 Haurrendako jolasak eta txokolatada, plazan.
19:30 Bideo emanaldia eta argazki erakustaldia, plazan.
20:30 Pintxo potea.

LAKUNTZA Bertso saioa.

Lakuntzako bertso eskolako emanaldia: Larraitz Goikoetxea, Urritz Alegre, Josu Sanjurjo, Xabal Ilarregi, Olatz Bados eta Eneko Lazkoz, eta bertso eskolako ikasleak.
19:00etan, plazan.

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzuno Abesbatzaren kontzertua.
19:30ean, kultur etxean (sarrerak agortuta).

ALTSASU Elkarretaratzea.

Etzeraren Azken ostirala kontzentrazioa.
19:30ean, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Elkarretaratzea.

Etzeraren Azken ostirala kontzentrazioa.
20:00etan, San Martin kalea 7. zenbakia.

UHARTE ARAKIL V. Polbo a Feira.

Lugoko Pulpeiro Barallaren Olagarro azoka: Txurraskoa, olagarroa, itsaskiak, kriolloak, ribeiroa, albariñoa...
20:00etatik aurrera, plazan.

ARBIZU Elkarretaratzea.

Etzeraren Azken ostirala kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.



ARTXIBOA

IRURTZUN Irurtzuno pintura tailerreko Pinturaren bidez bizitza gozatzen erakusketa.

Ekainaren 11ra arte. Pikuxar eta Tahonan.



UTZITAKOIA

LAKUNTZA Arte Oinez erakusketa.

Maiatzaren 26tik ekainaren 4ra arte. Astegunetz 17:30etik 20:00etara, eta larunbatetan eta igandetan 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara. Kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ

Elkarretaratzea.

Etzeraren Azken ostirala kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 27

ETXARRI ARANATZ Ikastaroa.

Homologatutako bideak nola mantendu trebakuntza teoriko-praktikoa, Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioak eskainia, Sakana Garapen Agentziak antolatuta.
09:00etatik 14:00etara, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Pala partidak.

Gure Pilota pala taldearen San Kiriko txapelketa: Katixa - Olaia / Irati - Natale; Olaitz - Sarai / Izane - Irati; Elene - Eider / Arhane - Jare; Haizea - Araitz / Irati - Malen
10:00etan, frontoian.

DORRAO Orientazio proba.

Orientazio proba: markatutako ibilbidean hainbat puntutatik pasa beharko dira, eta puntuetan argazkia egin eta kartulinak klikatu. Proba ez lehiakorra, eta diplomak banatuko dituzte. Dorraoko kontzejua, guraso eta gazte talde batek antolatuta.
10:30ean, Beriain eta Andia artean dagoen Gaztelu bordan.

Bazkide

ZOZ

keta

MARTXOKO SARIDUNAK

1. SARIA
Iñigo Aritza Ikastola
(Ziordi, Olazti, Altsasu, Urdiain)

2. eta 3. SARIAK
Sandra Carasatorre Nagore (Etxarri Aranatz)
Larka denda (Altsasu)
Mikel Golarazena Goñi (Irurtzun)

Er  **iti** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Las ocho montañas gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 26 19:00
Igandea 28 19:30

District Zero film dokumentalaren emanaldia, FilMOTEKA Nafarroan programaren barruan
Astelehena 29 19:00

Las buenas compañías gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 1 19:00



LAKUNTZA Tailerra.

Artea Oinez erakusketaren harira haurrendako arte tailerra.

11:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Konpost banaketa.

Konpost banaketa festa. Hamaiketako izanen da.

11:00etan, Txioka ondoko konposteran.

ETXARRI ARANATZ Euskal festak.

Haurren eguna, Etxarriko Gazte Asanbladak antolatuta.

11:30 Aurpegi margoketa eta margotzeko espazioa, plazan.

12:30 Etxarri Aranazko erraldioen konpartsa.

14:00 Bazkaria, plazan. Ondoren, jolasak. Tikitak: ikastolan, eskolan eta Leku Ona tabernan, 6 eurotan.

16:30 Scape Town, plazan.

18:00 Andra Mari Ikastolako VIII. Binakako Lasterketa: Nafarroa Oinez auzonalean. Naparpellet Saria: moto lasterketa, binakako lasterketa, lasterketa inklusiboa, argazkiak, auzatea...

20:00 Auzatea eta merendola, plazan.

ALTSASU Festa.

Alde Zaharreko auzotarren festa.

Eguerditik aurrera, Ferialekun.

UHARTE ARAKIL V. Polbo a Feira.

Lugoko Pulpeiro Barallaren Olagarro azoka: Txurraskoa, olagarroa, itsaskiak, kriolloak, ribeiroa, albariñoa...

12:00etatik aurrera, plazan.

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzango Abesbatzaren kontzertua.

17:00etan, kultur etxean.

ARBIZU Argi Bidea elkartearen 55. urteurrena.

Plazan.

17:30 Skapaie elektrotzaranga.

19:00 Ate irekiera.

20:00 Kontzertuak: Skabidean, Nafarroa 1512, Zetak, Raimundo el Canastero eta DJ Fresa Morango.

IRURTZUN Kontzertua.

Irurtzango Abesbatzaren kontzertua.

19:30ean, kultur etxean (sarrerak agortuta).

ALTSASU Kontzertua.

Erkudengo Ama Abesbatzaren *In Memoriam* kontzertua: Lorenzo Ondarra eta Eduardo Correa konpositoreei omenaldia.

Erreperitorioan Pablo Milanés, Xabier Leta, Leonard Cohen, Mikel Laboa eta abarren abestiak daude ere.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ZIORDIA Kontzertua.

Angel Oncay abeslariarekin flamenko gaua.

23:00etan, Etxaleku tabernan.

IGANDEA 28

IRURTZUN Lore azoka.

10:00etatik 14:30era, Foru plazan.

LAKUNTZA Bizi Festa

Bizi Festa: Bizikleta ibilaldi berezia, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean, Kirol, Euskara eta Berdintasun zerbitzuek antolatuta, parkean.

10:00 Bizikleta ibilbide erraza

Lakuntza eta Arruazu artean prestatutako ibilbidean. Bukaeran,

partaideen artean oparien zozketa eta auzatea.

12:00 Izaskun Mujika ipuin kontalariaren emanaldia.

12:30 Jolas herrikoiak, bizikleta konpontzeko tailerra, ipuin parekideen txokoa eta Elkarri Laguntza Elkarteari emanen zaion bigarren eskuko kirol materialaren bilketa.

ALTSASU Dantzari Txiki Eguna.

Etorkizuna Dantza Taldeak antolatutako dantzari txiki eguna, Lakuntzako Elai Alai eta Ibarrako Alur dantza talde gonbidatuekin (eguraldi txarrarekin egitaraua aldatuko da).

10:30 Dantza talde guztien elkarretaratzea, lortia zabalgunean (arkupeetan).

11:00 Kalejira.

13:00-13:30 Talde guztiek batera *Agurra* dantzatuko dute, Foru plazan.

UHARTE ARAKIL V. Polbo a Feira.

Lugoko Pulpeiro Barallaren Olagarro azoka: Txurraskoa, olagarroa, itsaskiak, kriolloak, ribeiroa, albariñoa...

12:00etatik aurrera, plazan.

ASTELEHENA 29

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 30

OLAZTI Tailerra.

Irakurkide Txakurrekin irakurketa tailerra, Sakanako Mankomunitateak eta Biak Bat elkarteak antolatuta.

17:00etan, liburutegian.

ASTEAZKENA 31

ALTSASU Liburu aurkezpena.

Beatriz Salinas Martínez de Ordoñanaren *Memorias* liburuaren aurkezpena.

18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 1

ARBIZU Hitzaldia.

Sakana tren sozialaren alde plataformaren tren alternatibaren proiektuaren aurkezpena.

18:30ean, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ Euskal festak.

Jose Luis Erdoziaren *Etxarriera kinkurraundiyon hizkera* hitzaldia, Etxarriko Gazte Asanbladak antolatuta.

18:30ean, gaztetxean.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Nerea Balda Sanjuan idazlearen *Azpimarrak* liburuaren aurkezpen festa, Joana Ziganda Olanok aurkeztuta, musika eta pasarteen irakurketek lagunduta.

19:00etan, Pikuxar ganbaran.

OSTIRALA 2

ALTSASU Dantza emanaldia.

Ekialdeko haizeak Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako gazte eta helduen dantza taldeen emanaldia.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Hitzaldia.

Donejakue bidea Sakanan Nicolás Arbizuren hitzaldia, Donejakue bidearen ondareari buruz. Sakana Garapen Agentziak antolatuta.

19:30ean, Gure Etxean.

ETXARRI ARANATZ Euskal festak.

Bertsolariak, Etxarriko Gazte Asanbladak antolatuta.

20:30ean, txoznan.

IRURTZUN Kontzertua.

Raimundo el Canastero taldearen kontzertua, *Bira Nafarroan Barna* programaren eta Trinitateko festen barruan.

21:00etan, kultur etxean.


OLAZTI Kontzertua.

Poxpol Olaztiko taldearen mustutze eta Muga Zero Lakuntzako taldearen kontzertua.


23:00etan, Clinker tabernan.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 26




Larunbata, 27



Igandea, 28



Astelehena, 28



BELEIXE IRRATIAREN
ELKARRIZKETA GUZTIAK:
WWW.GUAIXE.EUS

107.3 FM
beleixe

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzen duen bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, kornua eta *officea* ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Irurtzango Pikuxar tabernan zerbitzari eta sukaldari lan polita: Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Espezentzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculuma jasotzen ditugu tabernan utziz edo *pikutaberna@gmail.com* helbide elektronikora bidalita.

Etzari Aranazko Udalak zerbitzu anitzetako lanpostu baterako oposizio lehiaketa egingo du: D mailako lanpostua izango da, mantentze lanak eta zeregin orokorrak betetzeko eta aldi baterako kontratua egingo zaio. Hori bai izengaien zerrenda osatuko da ere. Baldintzetako bat euskara jakitea da, beste baldintzak eta informazio gehiago jasotzeko udaletxean edo *www.etzarriaranatz.eus* web orrian. Izena emateko epea garagarri-laren 8a.

LEHIAKETA

ZirTok umore errimatuaren lehiaketa: Bertsozale Elkarteak antolatuta, TikTok sare sozialean euskarazko umore errimatu suntu asmoz sortutako bideo motz lehiaketa, baita zirtoa (erantzun errimatu barregarria) eta zirtolariak ezagutarazteko asmoz ere. 13 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, nahi adina bideo igota, betiere Zirtok kontua etiketatua. Hiru sari egongo dira 500 euroko bat eta 250 euroko bi. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte egongo da parte hartzeko aukera TikTok sare sozialean. Informazio gehiago eta eredu ezberdinen bideoak

www.zirtok.eus web orrian edo TikToko ZirTok kontuan.

OHARRAK

Altsasuko Udalak udarako aisialdi eskaintzan eta datorren ikasturteko kirol eskoletan izen emateko epea zabaldu du: uztaila eta abuztuaren haurrendako Aisiz Blai eskaintza dago eta gazteendako Gu Geu Gazte eskaintzak. Datorren ikasturterako eskola kirolen eskaintza zabaldu publikatu da ere. Informazio gehiago eta izen emateak *www.altsasu.net* web orrian edo 012 telefonora deituz. Izena emateko epea garagarri-laren 7an amaitzen da.

Lakuntzako musika eskolan izena emateko epea zabalik: Deialdiari buruzko informazio guztia *www.lakuntza.eus* web orrian dago eta izena emateko epea garagarri-laren 25ean amaitzen da.

Aralar aingeruari haurrak aurkeztea: Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarako Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatuta du. 18. edizioa uztailaren 23an izanen da. Aldez aurretik izena ematen dutenek elizkizunaren ondoren umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoak jasoko dute. Horretarako, santutegiko sakristian edo dendan eman behar da izena.

Lakuntzako entitateendako Udalen dirulaguntza deialdia zabalik: Laguntzak eskuratzeko baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntzaren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen librea eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide eredu *www.lakuntza.eus* webgunean dago. Eskerak garagarri-laren 16ra arte aurkez daitezke.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda

marxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Altsasuko musika eta dantza eskolan izena emateko epea zabalik: Izena emateko bi modu egongo dira *www.altsasu.eus* webgunearen bitartez edo eskolako idazkaritzan (asteleheneretik ostegunera 15:30etik 20:00etara eta ostiralean 10:00etik 13:00etara). Informazio gehiago *https://altsasumusikadantza.eus* web orrian, *musikaeskola@altsasu.net* helbidera idatziz edo 948 564 581 telefonora deituz.

Herri Urratsen elkartasun uholdean diru ekarpenak egiteko: Herri Urratsera joatea ezinezkoa egin bazitzaitez eta sostengua erakusteko aukera hauek dituzte; *www.herrirrats.eus* web orrian sartuta eta materiala erosit. Bizum bidez Dohaintzak egiteko atalera sartuz (herri urrats aurkitu eta dirua bidaliz) edo honako kontu korronte hauetan diru sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197, ES98 2095 5045 8710 6117 7332.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian eskura dezakezue.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS


WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarki bakarrak iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki GUAIXE paperean eta *guaixe.eus*-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELA




Lourdes Mundiñano Garziandia

Gure ondotik joan zara,
baina gure bihotzetan izango zaitugu betiko

Arbizuko lagunak

ESKELA



Lourdes Mundiñano Garciandia

Agur lagun maittia

Neskatuek eta Mutikuek



ESKELA



Lourdes Mundiñano Garciandia

Minak min, nekeak neke
heldu zaigu samina
malkoak hustuz, bihotzak
alaitzen alegina
Lourdes, zukin egotea
beti izan da atsegina,
zure eskuzabaltasuna

eskertu duu makina.
Bizitzako maisu zara
aurria ateraz ezina
erakutsiz behin da berriz
indar agortezina.
Zurekin eta zuregatik
ardoz busti ezpainak.

Hobeenak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo *eskelak@guaixe.eus*

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €

prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

ESKELA



Jon Lopez de Sabando Satrustegi

Begiak itxita ere zure bi itsasargi ederrek gure bitzta argizatzen jarraitzen dute. Hartu ezazu atseden, politte.

Padrerenako izebak eta lehengusu-lehengusinak
Arruazu-Lakuntza

ESKELA



Jon Lopez de Sabando Satrustegi

"Beste izar bat piztu da zeruan, betirako gure gogoan."

Andra Mari ikastolako 90eko lagunak

ESKELA

Jon Lopez de Sabando Satrustegi

(Andra Mari Ikastolako ikasle ohia)



"Amets bat baldin bada
Betiko bizia
Amets ederrena da,
Amets da guztia"

Andra Mari ikastolako guraso, langile eta ikasleak


ESKELA



Jon Lopez de Sabando Satrustegi

Gorria, utzi duzun hutsunearen zauria.
Udaberrian, amapolak eta bizia.
Zuria, oroimenean izango zaitugula, maitia
bizitakoa guretzat
agurra handia.
Galparsoro-Zubiria
Gaintza-Solatar zure familia.

ESKELA



Sebastián Ochoaerrarte Beraiz

2023ko maiatzaren 19an hil zen

—Goian bego—

"Gure ondotik joan zara,
baina beti izango zaitugu gure bihotzetan"

Zure familia

Olazi



OROIGARRIA

Iosu Anduaga Goñi

XIII. urteurrena

Gu bihotzetan
zaude.

Zu fameliyek
Mayatzien 20an.



JAIOTZAK

- **Adam eta Rayan Yallich**, maiatzaren 16an Etxarri Aranatz
- **Merlin Efrain Canales Flores**, maiatzaren 17an Irurtzun
- **Ahmed Nadiri Ezzekraoui**, maiatzaren 18an Olaztin

EZKONTZAK

- **Vanesa Alvarez Matias eta Alvaro Carrillo Fernandez**, maiatzaren 22an Irurtzun

HERIOTZAK

- **Juan Fernando Moran Lopez**, maiatzaren 17an Altsasun
- **Lourdes Mundiñano Garziandia**, maiatzaren 18an Arbizun
- **Sebastian Ochoaerrarte Beraiz**, maiatzaren 19an Olaztin
- **Maria Berta Mena Alguea**, maiatzaren 20an Altsasun
- **Jon Lopez de Sabando Satrustegi**, maiatzaren 21ean Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

"Salaberriak asko jokatzendu, baina txapela nahi dut"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI PILOTARIA

PILOTA Joanes Bakaikoak Iker Salaberriaren kontra jokatu du Promesen Buruz Buruko finala Labriten. Bere bigarren Buruz Buruko txapela litzatekeena jantzi nahi du

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ
Aurreko ostiralean Altsasuko pilotalekuan jokatuak Promozio Buruz buruko finalerdietatik atera ziren larunbatean Iruñeko Labriten finala jokatu duten bi finalistak: Joanes Bakaikoa etxarriarra eta Iker Salaberria goizuetarra. Bakaikoak 17 eta 22 irabazi zion Asier Agirrerri, eta Salaberriak 22 eta 15 Julen Egigureni. Txapela preziatua lortzeko lehia gogorra espero da, biak eskarmentu handiko pilotariak baitira.

Promesetan Lau eta Erdiko bi txapela dituzu, eta Buruz Buruko bat, 2018koa. Buruz Buruko bigarren txapela litzatekeena jantzeko prest?
Berriz final baten atarian nago, pozik eta gogotsu. Sei urte daromatzen profesionalean, eta jokatu dudak seigarren finala da larunbatekoa. Kontentua nago, ilusioz.

Asier Agirrerren kontra Altsasun jokatuak finalerdian partida serioa egin zenuen, ona. Bakoitzak hamahiruna tanto egin zenituzten, Agirrek bederatzi akats eta zuk lau. Datuek ez dute partidetan gertatutakoa beti islatzen, zu datuek erakusten dutena baino askoz ere gehiago nabarmendu baitzinen kantxan.

Datuak zenbaki batzuk dira, baina askotan ez dute gertatutakoa edo egondako jokoa islatzen. Altsasun oso gustura aritu nintzen. Buruz burukoan tanto takada asko egoten dira eta agian partida lehenago itxi izan banu erosoago bukatuko nuke, baina ez nuen behar bezala itxi, Agirrek takada bat egin zuen eta partida bukaeran pixka bat sufritu nuen, baina orokorrean oso gustura geratu nintzen egindako lanarekin.

Halako tanto segidak edo takadak daudenean noiz sartzen zaizue arerioak harrapatuko dizuen beldurra edo urduritasuna? Buruz buru gehienetan denbora gutxian izaten da aldaketa.



Joanes Bakaikoa Satrustegi, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

"NAHIKU NUKE ALTSASUN IZANDAKO SENTSazioak LARUNBATEKO FINALEAN SENTITZEA"

Hala da. Buruz buru sakearekin edozeinek edozeini min asko egin diezairoke. Badakizu erres-toan topera egon beharra duzula, baina hala ere oso zaila izaten da. Norbait gerturatzen ari zai-zunean, nola edo ahala eusten

saiatu beharra duzu, lasai mantentzen. Arerioaren erritmoa mozteko atsedena tartea eska badezakezu, atsedena eskatu. Baina, batez ere, lasai egon eta eutsi. Ez dago beste sekreturik. **Binakakoan txapelketa ona egin zenuen Morgaetxebarriarekin bikoa osatuta. Finalerdietan erori zineten, itxura ona eman eta gero. Buruz buruan ere ongi ikusten zaitugu, baina baita Iker Salaberria ere. 2022ko Promozio Buruz Buruko txapelketa da eta 2022ko Buruz Buruko txapeldunordea. Arerio gogorra duzu aurretik.**

Ezkurdia, hirugarren postuaren bila

Aurreko larunbata ez zen Joseba Ezkurdiaren eguna izan. Buruz Buruko finalerdi garrantzitsua jokatu zuen Jokin Altunaren kontra leporaino beteta zegoen Labriten. Nahiz eta apustuak Altunaren alde atera, Ezkurdiak zaleak alde zituen, baina hasieratik nabaritu zitzaion ez zela betiko Joseba. Kateatuta jokatu zuen, guztiz blokeatuta, arbizuarrak berak partida bukaeran aitortu zuen bezala. Akats ugari pilatu zituen, eta opari gehiegi egin zizkion berez opari gutxi behar dituen Altunari, eta 12 eta 22 galdu zuen.

Gaur, maiatzak 26, ostirala, Buruz Buruko hirugarren postua erabakitzeko partida jokatu dute Ezkurdiak eta Dariok Ezcarayn. Asteazkenean aukeratu zuten materiala, eta Ezcarayko frontoian entrenatzeko parada izan zuten.

Salaberria oso pilotari gogorra da. Oso efektiboa dela esango nuke. Partida asko irabazten ditu. Agian ez du beste batzuen indarra baina berari irabazteko tantoa egin behar zaio, berak ez duelako ezer oparitzen.

Eta nola egingo diozu aurre? Zein izango da estrategia nagusia?

Niretako momentuan dituzun sentsazioak, eta unean bizirik sentitzen zaren edo ez, horrek asko esan nahi du. Buruz Buruko lehenengo bi partidetan nahiko deseroso sentitu nintzen. Aldiz, Altsasun, eroso, gustura. Nahiko bizi ikusi nuen neure burua. Nahiko nuke finalean Altsasun bizitako sentsazioak izatea. Horrekin asko nuke egina. Oso ongi jokatu beharko dut, oparirik egin gabe.

Labriten jokatu duzue final handia. Zuretako plaza ezin hobea.

Plaza polita, eta baita Salaberriarendako ere, bera ere nafarra delako. Aurreko final batzuk Labriten jokatu nituen, eta beti giro aparta egon da. Oroitzapen ederrak ditut. Igandekoa ere oroitzapen polita izango da, ziur.

Urduri al zaude? Finaletan esperientzia baduzu, baina, agian, halakoetara ohitzea ezinezkoa da.

Nire kasuan, final batean debutatu nuenean eta orain, nahiko antzeko. Denborarekin gutxiago urduritzen zarena diote, baina ni berdin-berdin jartzen naiz. Aurreko egunak ongi pasatzen ditut, arazorik gabe, baina gero finaleko momentua iristerakoan pixka bat urduritzen naiz. Dena den, normala dela esango nuke. Nahiz eta urduri jarri, gero partidako unean nerbioak eusten jakitea. Hori da garrantzitsua. Ea lortzen dudana.

Labrit beti izan da zalapartatsua, baina egunez egun gehiago. Pilotarietara nola bizi duzue?

Lehen halako giro zalapartatsua agian sanferminetan bakarrik izaten zen, baina orain festa giro hori ia larunbatero dago. Ematen du larunbatero sanferminak direla. Jende asko Labritera pilota partida ikustera baino, gehiago joaten da festa giroan. Guri ez digu eragiten, baina konturatzen gara.

Txapela Sakanara ekartzea...

...Oso polita litzateke Buruz Buruko nire bigarren txapela ekartzea. Badakit oso zaila izango dela, berak ere asko jokatzeko duelako eta oso momentu onean dagoelako. Baina saiaturiko naiz, gogoz.



Erremontea gertu dugu. ORIAMENDI2010

Erremontari herriz herri gaur Altsasura helduko da

ERREMONTA Torneoko bi partida jokatu dira ostiralean, 18:00etan, Burunda pilotalekuan

Oriamendi 2010-ek eta EITBk antolatutako Erremontari Herriz Herri Txapelketa deigarria Altsasura helduko da gaur, maiatzak 26, ostirala. 18:00etatik aurrera bi partida jokatu dira Burunda frontoian. Lehendabizikoan Urrutia II.ak eta Apezetxeak Zaldia II.a eta Eskudero izango dituzte aurkari, eta bigarrenean Urrizak eta Juanenak Aldabe eta Barrenetxea IV.a. Partidak 3 satera jokatu dira.

Zesta puntak ETBn izan duen arrakastaren bidetik jarraiki, torneo bizia eta ikusgarria da Erremontari Herriz Herri. Oriamendi 2010eko bikote guztiak ari dira parte hartzen, bi multzotan banatuta. Txapelketa berritzailea da: bikoteak ez dira finkoak, jardunaldi bakoitzean aldatzen joango dira eta puntuaketa indibiduala egingo da. Zortzi jardunaldiren ondoren, bakoitzaren emaitzak kontuan hartuta zehaztuko dira multzo bakoitzeko finalistak. Txapelketa Euskal Herriko bederatzi herrietan jokatu da, tartean Altsasun.

Galarretara doan

Altsasuarek maiatzaren 29an, astelehena, Hernaniko Galarreta Jai Alain jokatu den Erremontari Sagardoaren Txapelketa doan jarraitzeko aukera dute.



LA CONQUISTA DEL CASTILLO-RURAL KUTXA

Maite Beregañaren gaztelua

ATLETISMOA Igandean jokatu zen Gazteluaren Konkista, Zangoza eta Xabierko gaztelua batu zituen lasterketa (8 km). 450 korrikalari zeuden izena emanda eta irabazleak David Perez (28:17) eta Maite Beregaña uharte arakildarra (35:07) izan ziren, nagusitasunez. Juan Carlos Gomez 12. iritsi zen (33:22).



IÑAKI PORTO / DIARIO DE NOTICIAS

Maria Riscoren Bimendiak

MENDI LASTERKETAK Igandean Aurrabi Trail mendi lasterketa jokatu zen, bi distantziatan: Hirumendi (25 km) eta Bimendi (14 km). Bimendi lasterketa Ion Solak (1:12:29) eta Maria Risco uharte arakildarrak (1:40:19) irabazi zuten. Riscok ia minutu bat atera zion Maia Tabar bigarrenari (1:41:05) eta garaipena pozez ospatu zuen.

Munduko onenen artean

DISKO JAURTIKETA Asteburuan Hallesche Werfertage 2023 txapelketan (Alemania) lehiatu zen June Kintana Larraza bakaiquarra, munduko jaurtitzaila onenekin batera. Kintanak 55,60 metrokoa jaurtiketa egin zuen eta B multzoko bigarren jaurtitzaila onena izan zen, sailkapen orokorrean hamabigarren. "Esperientzia ahaztezina izan da, munduko onenez inguratuta".



UTZITAKOA

Iskizakoendako, fruitua jasotzeko garaia da

GIMNASIA ERRITMIKOA Iskiza Sakanako jubenilek Espainiako Kopan lan ederra egin zuten eta asteburuan Tafallan jokaturako Nafarroako Kirol Jokoetako taldekako modalitateko lehen fasean oso txukun aritu ziren

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Ikasturtean horrenbeste landutako eta prestatutako koreografiak eta ariketak erakusteko garaia iritsi zaie Iskiza Sakana taldekako gimnastei. Apirilaren 27an oinarritzko jubenil taldeak Santanderren jokaturako Espainiako Gimnasia Erritmikoko Kopan parte hartu zuen. 2 minutu eta 30 segundoko tarte zuten haien lana erakusteko. "Beraien lana oso ondo defendatu zuten, eta haien irribarre, begirada eta kideen arteko konplizitateari esker zenbaterainoko harrotasuna helarazteko gai izan ziren ikustea hunkigarria izan zen" azaldu du Olaia Agirre Iskiza Sakanako koordinatzaileak. Estatu mailan 25. postuan sailkatu ziren Iskizakoak, Nafarroako lehenak.

Nafarroako Taldekakoa
Asteburuan Nafarroako Kirol Jokoen Taldekako Gimnasia Erritmikoko Txapelketako lehenengo fasea jokatu zen Tafallan, eta Iskizako hiru taldek hartu zuten parte: haurrak, kadeteak eta kimuak. "Ikasturte osoko lana defendatu behar izan zuten eta tapizean jarrera bikaina izan zuten. Kontuan hartu beharra dago txapelketa batean entrenamenduetan landu ezin daitezkeen



Iskizako jubenilek lan ederra egin zuten Espainiako Kopan. ISKIZA

faktore askok eragina dutela, publikoak, epaileak eta lehiakideak egoteak eragindako urduritasuna, esaterako, baina gure gimnastek, irribarre ezpainetan, primeran dantzatu zuten. Entrenatzaileendako (Ainhoa Imaz, Olaia Agirre, Olaia Granizo eta Maria Remolina) sekulakoa da eurak gozaten ikustea, gure benetako altxorra". Kadeteek eta kimuek bigarren postua lortu zuten. Txapelketako bigarren fasea ekainaren 3an jokaturako da Berriozarren, eta gogor entrenatzen ari dira.



Nafarroako taldekakoa hasi da. ISKIZA

Sakandarrak bikain Iruñeko Half Triatlonean

TRIATLOIA Mikel Astiz Nafarroako txapeldunordea izan zen eta Sergio Garcia de Eulate hirugarren nafarra

Larunbatean jokatu zen 8. Iruñeko Half Triathlon. 700 triatletek Alkozko urtegiaren 1.900 metro igeri egin behar izan zuten, bizikleta hartu eta Iruñera iritsi (85 km), eta 19,5 kilometroko lasterraldia egin, proba Gaztelu Plazan des-

peditzeko. Elite mailan Fernando Zorrillak (3:43:08) eta Ruth Britok (4:27:56) irabazi zuten. Mikel Astiz ihabardarra (Hiru Herri) 26. postuan sailkatu zen (4:15:40), eta Nafarroako txapeldunordea izan zen, merezimendu osoz.

Espainiako Distantzia Erdiko Adin Tartearen Txapelketan Alexandre Otero (4:04:46) gailendu zen. Sakandarrak oso ongi ibili ziren. Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 10. sailkatu zen (4:28:20), 40-44 adin tartean hirugarren eta Nafarroako Txapelketan hirugarren. Jose Ignacio Mikeo 63. iritsi zen, 50-54 tartean hirugarren (4:41:47); Iñaki Alvaro 84., 35-39 tartean 16. (4:47:50); Antton Zelaia 99., 45-49 tartean 17. (4:51:25); eta Jon Iturrioz 105., 50-54 tartean 7. (4:53:31).



Roberto Martil kapitaina, Osasuna Magna Xota eta Betis taldeen arteko partida erabakigarrian Anaitasunako kantxara ateratzen. XOTA

"Imanolen martxa penaz hartu dut, baina aurrera egingo dugu"

ROBERTO MARTIL FERNANDEZ OSASUNA MAGNA XOTAKO KAPITAINA

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak salbazioa lortu du eta Lehen Mailako 26. denboraldia nobedade garrantzitsuekin hasiko du, hasteko, entrenatzaile berriarekin

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Xota beste urte batez Lehen Mailako taldea izango da. Larunbatean jokaturako ligako azken jardunaldian Betis Futsal taldearekin bana berdindu eta gero, Lehen Mailako sailkapenean hamabosgarren izan da Imanol Arregik zuzendu duen taldea. 2023/2024 denboraldian Lehen Mailan bere 26. denboraldiari ekingo dio, nobedade askorekin, garrantzitsuena Imanol Arregik ez duela taldea zuzenduko. Gauzak ongi, Roberto Martilen lesio

larriak onera egingo du eta kapitaina itsasontzi berdera itzuliko da.

Denboraldi gogorra izan da aurten-goia. Azkeneko jardunaldira arte bihotza estututa, Lehen Mailari ertsiko zenioten ala ez.

"500 PARTIDA JOKATU NITUELA OSPATUTA, 501. PARTIDAN LESIONATU NINTZEN. ETA NOLAKO LESIOA"

Gogorra izan da, eta luzea. Momentu onak izan ditugu, momentu txarrak... denetatik. Gaizki hasi ginen; lehenengo itzulia bukatuta, abenduan azkenak ginen. Bigarren bueltan ongi hasi ginen, baina azkeneko partidetan ongi jokatzeko genuen baina ez genuen puntuatzen. Azkeneko jardunaldian erabaki zen dena, eta banakako berdinketarekin lortu genuen. Oso pozik nago. Urtea libratu dugu. Betis ere zuen egoera berdinean zegoen, eta berdinketarekin bi tal-

deek lortu zenuten salbazioa. Poztasun bikoitza Anaitasun.

Bai, berezia izan zen. Betis ere mantendu da, eta bi taldeak Lehen mailan egongo gara berriro.

Urte berezia izan da. Batetik, Xotan zure 17. denboraldia ospatu zenuen, eta 500 partida, eta, bestetik zoritxarra, Levanteren kontra lesio larria izan zenuelako. Hiru lesio dituzu ezker belaunean: aurreko lotailu gurutzatuaren haustura, barruko lotailuaren haustura eta kanpoko meniskoaren haustura.

Nola diren gauzak. 500 partida egin nituen, eta festa polita egin genuen ospatzeko. Eta hain justu 501. partida jokatzeko ari nintzela lesionatu nintzen. Eta nolako lesioa! Behin lesionatzen hasi, eta lesio hirukoitza. Egia esan, nahiko gaizki pasatu dut. Ez nik bakarrik, familia guztiak baizik, gogorra izan delako. Bi alaba txiki ditut, hiru urtekoa eta urte batekoa, ni muletekin, ezer egiteko gai, eta dena pilatzen da. Zorionez, familia ederra dugu bikoteak eta biok, eta izugarri laguntzen gaituzte. Taldeak horrenbeste zuen jokoan, eta partida hauetan ezin jokatzeko, esperientzia eder hau ez bizitzea gogorra izan da. Partida bereziak dira, presio handia dagoelako eta zailak direlako, baina aldi berean politak dira jokatzeko, bizipen ederrak. Baina hau tokatu da, eta nolabait pasatzen ari gara.

Ebakuntza egin zizuten eta orain errehabilitazioan zaude. Zer diote medikuek? Noiz osatuko zara?

Belaunaren martxak zehaztuko du. Halako lesioak osatzeko ebakuntzatik zazpi hilabete behar izaten dira. Apirilaren 5ean egin zidaten ebakuntza. Baina osatzea ez doa aurreikusitako genuen bezala, mantsoago doa. Agian berriz ebakuntza gelatik pasa beharko dut, belauna zurrun dagoelako, gogortuta bezala, ez du jokoa ongi egiten. Atxikidura hori kendu nahi dute. Medikuek esaten didate lasai egoteko, hobetzen joango dela. Orain taldekideek oporrak hartu dituzte, eta ni oporrak gabe geratuko naiz errehabilitazioan lanean (kar,

"XOTA JAITSIKO ZELA ESATEN ZUTEN ASKOK. BADA, HEMEN GAUDE BERRIRO, BESTE URTE BAT BORROKAN"

kar). Azaroa inguruan bueltatzea espero dut. Ea posiblea den.

Errehabilitazio saioak gogorrak al dira?

Bai. Egunean ez dut oinazetik sentitzen, baina sesioetan bai, belauna mugitzen didatelako. Une eta egun txarrak daude. Zaila da, baina pasatuko da, hau ez da betirako. Dena den, egun hobek gehiago dira txarrak baino. **Zure rola animatzailearena izan da azken txanpa honetan.**

Entrenamenduetara eta partidetatara joan naiz. Partidetan harmailetan goian hasi nintzen jartzen, oso urduri jartzen naitzelako, baina azken bi partidetan taldearen aulkitik gertu jarri nintzen, nire burua lasaituta, taldekideei aholkuak emateko. Uste dut lagundu diedala, eta horrek poztu nau. Nik ere partidak beste modu batez ikusten ikasi dut, eta partidetan beste modu batean egoten, lasaiago.

Osasuna Magna Xotak duen aurrekontu xumea kontuan izanda, Lehen mailan egotea berez harrigarria da. Zer beharko luke taldeak Lehen mailan lasaiago ibiltzeko? Taldeak ongi jokatzeko du, baina gehienetan punteria falta da arazoa, kontrako atean asmatzea.

Hala da. Gauza asko behar ditugu, tartean esperientzia gehiago duen jendea. Gurea talde oso polita da, gaztea, baina esperientzia gehiago duen jendea ere behar dugu. Horretarako aurrekontu gehiago behar da, laguntza ekonomiko gehiago, eta hori lortzea zaila da momentu hauetan. Dena den, nik konfiantza handia dut talde honetan, gazteak direlako baina urtero pixka bat helduagoak. Hiru urte elkarrekin dararamagun bloke hau sendotu beharra dugu. Pentsatzen dut bizpahiru moldaketarekin maila altuagoa izango genukeela, hobeto moldatu ahalko genukeela. Baina zaila da lortzea. Urtero, denboraldi hasieran kinieletan jartzen digute, aurten mailaz jaitsiko garela esateko. Twitterren abuztuan irakurri nuen "aurten Xota jaitsiko da eta beste bat. Xota eta beste bat". Nik hori il-tzatuta dut. Bada, hemen gaude berriro, eta beste urte bat egongo gara gerra ematen.

Ospakizunen bat egin al duzue?

Astelehenean Bi Sisters babesle irurtzundarren hanburesategian ospatu genuen. Talde osoa bildu ginen bazkaltzera. Eta taldekideek oporrak hartuko dituzte, datorren denboraldia oso goiz hasten de-

lako. Irurtzongo festen ondoren hasiko dira entrenamenduak.

Hurrengo denboraldirako baikor al zara?

Bai, ilusioz nago. Orain ikusi behar dugu zein jokalaririk gelditzen diren eta zer aldaketa egiten den, Imanol entrenatzailearen aldatetik hasita. Juntak badu lan nahikoa.

IMANOLEN AGURRA

Nola hartu duzu Imanolek taldea uzteko hartutako erabakia, 22 urtez Xota entrenatzen aritu ondoren?

Sorpresa pixka batekin, baina ez horrenbestekoa, egia esan, Imanolek bizpahiru urte daramalako zenbait aipamen egiten. Penaz hartu dut, Imanol oso garrantzitsua delako taldearendako, jokariendako eta klub guztiarendako. Berak igo gaitu Lehen Mailako taldera, bera izan da gure mentorea. Oso eskertuta nago berarekin. Niri aukera asko eman dizkit, bata bestearen atzetik, eta beti konfiantza izan du nigan. 14-15 urterekin talde nagusira igo ninduen entrenatzera, eta aita bat bezala izan da niretako. Pena handia dut baina argi dago atsedena behar duela, eta merezi duela.

Karga handia zuen.

Jakina, Imanol ez delako entrenatzaile normal bat, besteak bezalakoa. Berezia da, berarendako Xota ez delako talde bat, bere taldea baizik. Txikitatik egon da Xotan, hasieran jokalaririk eta gero entrenatzaile, eta berarendako bizitzeko modu bat da Xota. Galzten badugu oso gaizki pasatzen du. Berak esana da agian beste talde batean balego galduz gero ez lukeela horren gaizki pasatuko. Eta guk azken hiru urteetan oso gaizki pasatu dugu. Gainera,

Xotan lan handia du: entrenatzaile izateaz gain, kirol zuzendaria da, coachinga... dena egiten du. Atsedena merezi du.

Ez du gehiegi iraungo ezer egin gabe.

Entrenatzaileek beste hainbat gauza egiten dituzte gaur egun, clinic-ak, esaterako. Badakit udan clinic saio batzuk egin behar dituela Martorelen, Kanariar Irletan... Bestalde, Costa Ricako selekzioetik ere zenbait gauza egitea eskatu diote. Lanak egingo ditu, baina momentuz talde bat zuzentzeko presiorik gabe. Eta gero ikusiko da. Bitartean gehiago disfrutatuko du familiaz, bikoteaz eta Hegoi bere seme txikiak.

Beste etapa bat biziko du Xotak.

Hala da. Imanolek dioen bezala, hemen ez dago ezinbestekoa den inor. Aurrera egingo dugu.

Anaitasunara joango omen da, hooligan moduan taldea animatzera. Agian gehiago estutuko zaituzte horrela.

(Kar, kar). Harmailetatik "pasa baloia" eta halakoak ez ditzala oihukatu eskatu diot.

DANI SALDISE

Dani Saldise irurtzundarra, Xotako taldekide ohiak nolako denboraldia egin duen Palma Futsalekin: Europako Txapelidunak izan dira eta ligako liderrak.

Izugarria da. Dani Saldisek egin duena ez dugu nahikoa baloratzen. Europako Champions Kopa irabaztea sekulakoa da, horrenbeste talde bikainen aurrean: Sporting Lisboa, Benfica, Barça... Dani oso pozik dago. Inter Movistarren zenbait titulu irabazi zituen, eta Palma Futsalekin aipatutakoak. Palma gutxika asko indartu da eta orain oso talde ona da. Liga-

ko lider izateak balio handia du, liga luzea delako. Orain titulua lortzeko play-offak jokatuko dituzte.

Ez al da pixka bat bidegabekoa ligako liderrak liga ez irabaztea eta titulua play-offetan erabaki behar izatea?

Sarritan gertatzen da liderrak ligako titulua ez irabaztea. Gu ohituta gaude, txapelketa horrela delako, play-offetan erabakitzen baita, saskibaloian eta bestelako kirol batzuetan bezala. Bidegabekoa izan daiteke, baina nik formatu hau gustuko dut gu talde txikia garelako eta talde txikiak aukera gehiago ditugulako ligako titulua irabazteko. 2010ean ligan 7. sailkatu ginen eta play-offetan finalera iritsi ginen. Talde txikiendako, hobe da.

EMAKUMEZKOEN ENTRENATZAILE Emakumezkoen lehen senior mailako taldea entrenatzen duzu. Denboraldi ona egin du taldeak, pena Kopako finalerdian Orvinaren kontra erori izana.

Orvina da maila horretako talderik hoberena, koska bat gorago dagoena. Nahiz eta euren kontra finalerdia galdu, oso pozik nago, Xotakoek partida oso ona egin zutelako. Atsedena bakanak berdinketarekin gindoa baina azken minutuan bigarrena sartu ziguten, eta bigarren zatian ihes egin ziguten. Bi baja garrantzitsu izan genituen, eta oso pozik nago hiru kadete gurekin egon zirelako jokatzen, oso ongi. Niretako hori da garrantzitsua. Xotak emakumezkoen atal sendoagoa du, eta hori da helburua, emakumezkoen atala indartzea. 2015ean hasi ginen emakumezkoen senior taldearekin eta egun nesken lau talde ditugu. Hori da bidea.



Imanol Arregi dena eman du bere klubaren alde. XOTA

Imanol, beti berde

Imanol Arregi Sarasak (Irurtzun, 1971) Xotako zuzendaria izateari utzi dio, bizitza guztia klub irurtzundarrari eskaini ondoren. 15 urterekin hasi zen Xotan, atezain. 30 urte zituenean jokalaririk izateari utzi zion, eta berehala, 2009/2010 denboraldian, Lehen mailako taldeko entrenatzaile hasi zen. Orduetik 22 urtez aritu da Xotako entrenatzaile eta pilare garrantzitsua izaten. Bere agurrekin Xotaren aro bat itxi da, eta aro berria prestatzeko lan handia du Tatono Arregi bere anaiak kudeatzen duen klubak.

Imanol hunkituta azaldu zen prentsaurrekoan. "Azken hilabeteak oso gogorak izan dira. Airea behar dut, arnasa hartu. Erabakia duela hilabete batzuk hartu nuen, eta atzera ezina zen, salbuespen batekin: taldea mailaz jaitea. Hori oso argi nuen, mailaz jaitsi bagina, klubean jarraituko nuela".

Imanolek dena eman du Xotaren alde, hori ezin daiteke uka. Nekea nabaritzen zaio. "Erabaki hau beti luzatzen ibili naiz, kluba beti nire aurretik jarri dudalako eta klubak behar ninduelako. Izan ere, ni naizena Xotari esker da. Bizitza eman dut klub honengatik. Nire izaera ere horrela delako. Ni beti berdea izango naiz, eta datoren denboraldian harmailetan izango nauzue taldea animatzen, hooligan baten antzera".

"Eskerrik beroenak" eman zizkien jokalariei, juntari, familiari, lagunei eta zaleei, "beti eskaini didaten babesarengatik". Xotaren zaleendako hitz ederrak izan zituen, "errespetuzko jarrera dutelako eta une onenetan, eta bereziki, txarretan, beti gurekin daudelako". Epe luzean entrenatzera itzuliko dela aitortu zuen. "Ez dakit non eta noiz. Baina ongi egiten dakidan gauza bakarra da". Bukieran, Xota gorapatu zuen. "Hau nire etxea da, nire kluba. Ez dut inoiz ahaztuko. Garrantzitsua beti Xota izango da. Aupa Xota!".



Kopako txapelidunak. Emakume kadeteen Xotak Kopa irabazi du.



Jubenilak, ligako txapelidunak. Jubenilen Ibararte-Xotak liga irabazi du. Argazkian, senitartekoekin.



Aralar Mendi, Lauko Finalarekin pozik.

Aralar Mendik Kopako Lauko Finala jokatu du bihar

ARETO FUTBOLA Uharte arakildarrek Kirol Sport izango dute aurkari finalerdietan

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Areto futboleko Hirugarren Mailako Kopa azken txanpan murgildu da. Bi multzotan banatuta jokatu da taldekako fasea, eta bi multzoak kontuan hartuta zenbaki onenak izan dituzten lau taldeak sailkatu dira Lauko Finalerako; Uharte Arakilgo Aralar Mendi, Orkoiengo Kirol Sport, Antsoaingo Gazte Berriak eta Garbayo Chivite Cintruenigo.

Ibararte Xota, kanpo

Ibararte Xota talde irurtzundarra kanpoan geratu da, oso gutxiagatik. Bere azken partida irabazi beharra zuen (hala egin zuen, San Juan 4 eta 2 irabazita), eta Cintruenigoren eta Aralar Mendiren arteko emaitza itxaron. Ibararte Xota Lauko Finalean sartzeko Erriberako taldeak irabazi beharra zuen, baina partida binako berdinketarekin despeditu zenez, bi taldeak, Cintruenigo eta Aralar Mendi, pasatu ziren Lauko Finalera. Beraz, Igor Etxarrik zuzentzen duen taldearendako denboraldia bukatu da.

Lauko Finala maiatzaren 27an, larunbata, jokatu da, Antsoaingo Idaki kiroldegian. Aralar Mendik Kirol Sport izango du aurkari finalerdietan, 10:00etan, eta Gazte Berriak Cintruenigo, 12:30ean. Irabazleek Kopako final handia 19:30ean jokatu dute.

Etxarri Aranatz, Preferenteari eustera

FUTBOLA Preferente mailako azken jardunaldia dago jokoan. Altsasuk mailari eutsi dio baina Lagun Artearendako azken lau garaipenak ez dira nahikoak izan eta maila galduko du. Etxarri Aranatzek, salbatzeko, Arrotxapeari irabazi beharko dio El Iratin

Maidar Betelu Ganboa

ALTSASU / ETXARRI ARANATZ / ALTSASU Preferenteko Mailako 33. jardunaldian Altsasuk 3 eta 0 galdu zuen Itaroa Huarte B taldearen kontra, Etxarri Aranatzek 2 eta 0 irabazi zion Donezteberi eta Burlataren kontra 0 eta 3 irabazi zuen Lagun Arteak. Amigok jarraitzen du Preferente mailako lider (75 puntu). Altsasuk hamabigarren segitzen du (40 puntu), azken lau partidak galdu eta gero. Etxarri Aranatz hamabosgarren da (32 puntu) eta Lagun Arteak hemezortzigarren (26 puntu), azkena.

Liga despeditzeko azken jardunaldia jokatu da asteburuan.



Etxarri Aranatzek dena du jokoan Arrotxapean. UTZITAKOA

Mintegi eta Lasa, Laboral Kutxako egunotako izenak

TXIRRINDULARITZA Iker Mintegi Orlen Nations Grand Prixen dago lehian eta Ailetz Lasak podiuma egin zuen Ataunen

Laboral Kutxako izen propioak izan dira Iker Mintegi eta Ailetz Lasa egunotan. Altsasuarra Hungarian dago, Espainiako 23 urtez azpiko selekzioak deituta Orlen Nations Grand Prixen lehiatzen. Ziordiarra bigarren sailkatu zen

igandean Ataungo San Martin Proban, Dylan Westleyrekin (Finnisher) izandako esprint estuan.

Kadeteak Sorian

Austeburuan Challenge Comunidad Cintoran parte hartu zuten

kadeteek, Sorian. Erlojupekoan (9,4 km) Top 10ean hiru sakandar sailkatu ziren: Ekain Imaz (Queesos Albeniz) hirugarren (17:36), Sakana Group-Aleako Luca Martinez bederatzigarren (18:23) eta bere taldekide Oihan Gorriti hamargarren (18:27). Lasterketa bertan behera gelditu zen, erorketengatik. Erik Laiglesia behatza apurtu zuen. Emakumezkoek Larrinbeto Sari Nagusia jokatu zuten. Ane Beltran 16. sailkatu zen, Ane Berastegi 17. eta June Etxeberria 24.



Ailetz Lasa, bigarren Ataunen. LABORAL K.

Kirolen azken festa Olaztin

KIROLDEGIA Maiatzaren 20an, larunbata, Olaztiko Sutegi klubak 2022/2023 denboraldiko bere kirol talde guztien erakustaldia egin zuen Erburua kiroldegian. Sutegi klubak taekwondo, gimnasia erritmikoa, pilota, areto futbol eta irristaketa taldeak ditu. Talde bakoitzak bere kirol erakustaldia egin ondoren, guztiek talde argazkia atera zuten.



SUTEGI

Nahiz eta irabazi, Lakuntzako taldeak ezingo du jaitsiera postuetatik atera eta Erregional mailara jaitsiko da. Denboraldian lortu dituzten sei garaipenetatik lau azken lau asteetakoak izan dira. Lastima liga hasieran horren gaizki ibili izana. Lagun Arteak sailkapenean laugarren den Aibarés taldea hartuko du Zelai Berrin, larunbatean, 18:00etan. Etxeko zaleen aurrean ligari amaiera polita eman nahi diote lakuntzarrek.

Altsasuk Burladés taldea hartuko du larunbatean, 18:00etan, Dantzalekun. Altsasuk Preferente mailari eutsi dio eta lau porrot jarraituen ondoren, garaipenarekin despeditu nahi du liga. Etxarri Aranatzek bigarren den Arrotxapearen kontra jokatu du larunbatean, 18:00etan, El Iratin. Etxarri jaitsiera postuetan dago, hamabosgarren, baina partida irabazten badu eta sailkapenean bere gainetik puntu berberekin hamalaugarren den Beriain taldeak puntuatzen ez badu, hamalaugarren postura igo eta Preferente mailari eutsiko dio. Hori da etxarriarren itxaropena. Ea lortzen duten.



Irurtzongo Abesbatzako kideak. UTZITAKOA

Abesbatzaren kontzertu bereziena, kultur etxean

Irurtzongo Abesbatzak kontzertu "berezia" emanen du gaur eta bihar herriko kultur etxean. Espektazioa sortu da, eta dagoeneko eginen dituen hiru saioetako biretan 'sarrerak agortuta' kartela zintzilikatu du

E. R. B. IRURTZUN

Duela hamazazpi urte sortu zuten Irurtzongo Abesbatza. Elizako abesbatza zeuden kide batzuek estilo desberdinetako abestiak ikasi nahi zituztela azaldu du Fermin Idareta Goldazarena koruko zuzendariak: "Ideia bikaina iruditu zitzaidan bi arrazoirengatik: arlo pertsonalean bost urte lehenago pianoko karrera bukatu nuen Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan eta profesionalki beste bide bat jarraitu nuen, musikari lotuta jarraitzeko aukera paregabea zelako". Irurtzunen aurretik ez zegoen abesbatza tradizioz, "eta norbaitek hasi behar zuela pentsatu nuen". Hamabost kide hasi ziren eta, gaur egun 27 abeslari daude. Gaur, maiatzak 26, eta bihar, maiatzak 27, kontzertua emanen dute, lehenengo aldiz, Irurtzongo kultur etxean. Bi egunetan hiru emanaldi emanen dituzte, eta dagoeneko gaurko eta biharko 19:30eko saioetarako sarrerak agortu dira. Biharko 17:00etako emanaldirako baten bat gelditzen da.

"Kontuan izan behar da abesbatzaren kide gehienek ez zekitela musika irakurtzen, ez zuten musika ikasketarik". Abestiak ikasi ahal izateko "metodo bat" garatu behar izan zuten, "eta zaila izan arren lau ahotseko abesbatza osatu nahi genuen".

Lehenengo kontzertua herrian bertan egin zuten, baina Arakilgo zenbait herritara ere abestera atera ziren, "eta herri hauek jendea abesbatzara batu zen". Taldea handitzen hasi zen, eta musikalki hezten. "Nafarroa osoan zehar kontzertuak egiten hasi ginen: Nafarroako Abesbatzen Elkarteko kideak gara 2010. urtetik". Idaretaren semea jaio zenean, Patxi Martinek hartu zuen zuzendaritza, eta berarekin Hueskako Loarreko gazteluan eta Tarazonako katedralean aritu zen abesbatza. 2019an itzuli zen Idareta zuzendaritzara. "Pandemiarekin entseguekin jarraitzea erabaki genuen, bakarrik hamar pertsona elkartzen ginen arren". Momentu zailak izan zirela gogoratu du Idaretak, "baina zorionez kide gehienak bueltatu ziren, eta gure jarduera berreskuratu genuen".

Abesbatza

Gaur egun 27 abeslari daude Irurtzongo Abesbatzan; hamasei emakume eta hamaika gizon. Irurtzongo, Satrustegiko, Hiriberriko, Ihabarko, Irañetako eta Uharte Arakilgo kideak daude. "Taldea polita osatzen dute, gehienek urte asko daramate elkarrekin abesten, eta giro bikaina dugu".

"Estilo guztietako" abestiak kantatzen dituzte: "Musika

herrikoa, poema musikalizatuak, musika klasikoa, filmetako abestiak, erlijio kantak...". Hainbat hizkuntzatan abesten dute, esaterako, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, latinez eta abar. "Gure errepertorioa oso zabala da, eta beti izan dugu ideia berbera: entzulearendako interesgarriak izan daitezkeen abestiak eskaintzea".

Gaurko eta biharko kontzertua "ilusio eta gogo handiarekin" prestatu dute. "Herrian egindako kontzertuetatik erabat desberdina izango da". Orain arte kontzertuak elizan, frontoian edota kiroldegian egin dituzte. "Inoiz ez kultur etxean". Hurbiltasuna ematen duela uste du Idaretak. "Gauza asko egiteko aukera berriak ematen dizkigu aretoak". Hala ere, kultur etxearen edukieragatik hiru emanaldi eman behar dituzte sarrerak atera eta gutxira sarrerak agortu zirelako. "Ahalegin handia eskatuko du, baina uste dugu jendeak prestatu dugunaz gozatzera merezi duela". Orain arte kantatu dituzten abestirik "politak" entzungo dira kontzertuan. "Ezin ditut xehetasun gehiago kontatu, baina sorpresa interesgarriak egongo dira". Urtean zehar Nafarroan zein Irurtzunen zenbait kontzertu ematen dituzte.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Rork

Komikizalea naizenez, nire komiki kuttunenak noizean behin berrirakurtzea oso gustukoa dut. Gaur nire bihotz txikia zabaldu nahi dizuet, nire bildumako komiki kuttunetarik bati buruz hitz eginez. Oraindik ez dut ulertzen zer duen komiki honek hainbeste erakartzen nauena, zerk egiten duen niretzat hain berezia izatea. Komiki honek magia du goitik behera. Misterioak kapitulu batetik bestera gidatzen nau. Mistizismoak biñetak haien artean josten ditu komiki liluragarri eta paregabe bat osatzeko.

Komiki honek *Rork* du izena eta Andreas autore alemaniarra idatzi eta marraztu zuen 1978tik 1993ra. 7 albumetan, "Rork" magoaren abenturak kontatzen dizkigu. Rork beste mago, alkimista eta lagunekin batera munduko misterioak azaltzen saiatuko da. Oso deskribapen orokor eta alferra dirudi, baina zin digit, lagunok, ezin dudala beste modu batean azaldu. Gidoia erokeria, zentzugabetasun eta inprobisazioz beteta dagoela ematen du lehenengo irakurketa batean. Hala ere, hiru hitz

horietatik zuzena azkena da. Andreasek ez zuen espero Rorkentzat 7 album idatzi eta marraztu beharko zituenik lehenago marraztu zuenean. Hirugarren ataletik aurrera istorioa eraikitzen joan zen Andreas. Honek komikiaren misterioari asko lagundu zion, autore berak ez baitzekien nola bukatuko zuen istorioa.

Marrazkiak dira, hala ere, komiki hau berezi egiten duena. Andreas orrialde guztietan dago biñeten konposizioarekin jolasten. Biñeta laukiak, luzeak, erraldoiak, ñimiñoak... egiten ditu. "Jaitsiera" kapitulua maisulana da gai honetan. Andreasek irakurlearekin jolasten du, haren begiak hara eta hona zuzenduz, Tango bat balitz bezala. Hori guztia gutxi balitz, Andreasen marrazkiak kalitate oso handikoak dira. Andreasen estilo errealista modukoa paregabea da tramak duen mistizismo ilunarentzat. Trama pila bat erabiltzen ditu marrazki hauei itzala emateko eta emaitza guztiz itzela da.

Rork oso komiki berezia da. Haietaz "oso obra pertsonala" dela esaten den horietako bat.



Dantzariak plazara

Lakuntzako Elai Alai dantza taldeko kideak kalera atera ziren larunbatean, haien eguna ospatzera. Herritik kalejira egin zuten eta, arratsaldean, dantza emanaldia egin zuten, plazan. Igandean Altsasuko Dantzari Txiki eguna ospatuko dute Altsasun, eta herriko Etorikizuna dantza taldearekin batera Elai Alai eta Ibarako Alur dantza taldeek parte hartuko dute.

Garai bateko memoriak

Beatriz Salinas Martínez de Ordoñanak bere bizitzaren inguruan "koaderno asko" idatzi zituen eta 'Memorias' liburuan bildu zituen. Orain, Beatriz de la Vega Salinas alabak edizio berri bat kaleratu du, eta maiatzaren 31n Iortian aurkeztuko du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Beatriz Salinas Martínez de Ordoñana 1926an jaio zen eta 20. mendea ia osorik bizi izan zuen. 85 urterekin Bernardo Atxagarekin izandako solasaldi baten ondoren, bere historia idazten hasi zen eta liburu batean bildu zuen. Bi edizio "xume" publikatu zituen eta orain hirugarrena publikatu du Beatriz de la Vega Salinas alabak, eta maiatzaren 31n, asteazkena, 18:00etan, Iortia kultur gunean, aurkezpena egingen du. Zerbait "xumea" izanena da: "Herriko jendeak kariño handiarekin gogoratzen du ama eta nik uste ezagutzen zuen jendea etorriko dela; oso hunkigarria izanena da".

Salinas Galarretan jaio zen eta sei ahizpa ziren. "Hamar urte zituen gerra hasi zenean, eta ongizate ekonomikoa eta askatasun familiarra zuen, aita Ameriketatik diruarekin eta pentsamolde aurrerakoiekin etorri zelako". Egun batetik bestera hori guztia zapuztu zen, 1936ko estatu kolpearen ondorioz. "Bere aita eta maisuak eraman zituzten eta maisuak erail zituzten. Maisuak miresten zituen eta tragedia bat izan zen, bizitza irauli zion gerrak". Gurasoak erbesteratu ziren eta sei ahizpak aiton-amonekin gelditu ziren, "egoera oso zailean eta tristezia handiarekin" bizitzen. Egoera horrek arrastoa utzi zion.

Emakume "kuri osoa" zen eta garrantzia handia ematen zion bere herriari, ohiturei, arbasoei eta abar. "Eguneratuta bizi zen, hainbat egunkari irakurtzen zituen eta irratia entzuten zuen. Jakintza naturala eta oso berezia zuen". Istorio oso zailak bizi izan zituzten familian, eta beti aurrera egin zuen, "indarrarekin bizirauten zuen. Lau seme, ahizpa guztiak eta senarra hil zitzaizkion, baina

berak aurrera egiten zuen". Zailtasunei aurre egiteko modua miresten du alabak.

Iragana

Pedro Salinas Arregi, Beatrizen aitak, bere memoriak idatzi zituen aurretik eta Beatrizek biziki miresten zuen aitak utziriko liburuak. Hortaz, erabaki zuen berak ere oinordekoentzat, memoria liburu bat utziko zuela. Azken urteetan liburuak idazten joan zen, "koaderno asko zituen eta gora eta behera bere oroitzapenak idazten zituen. Ordu asko pasa izan ditu". Sukaldeko mahaian koaderno handietan idazten gogoratzen du Beatriz alabak. Bizitako modu kronologikoan idatzi zuen: herenaiton-amonekin hasten da, txikitako pasarteak, gerra, Altsasura iritsi zenean, Alaska hotela...

Memoriak idazten zituen azken bi urtetan Beatriz alabak eta honen iloba Juanek idazten lagundu zioten. "Berrikusi eta zuzendu dut. Aldaketa oso-oso txikiak daude". Argazkiak sartu dituzte eta epilogoak idatzi du Beatriz de la Vegak: "Bere bizitza kontatzen duenez eta bere heriotzaren esperientzia ere zoragarria izan zenez, kontatu behar zen ere".

"Niretako liburu oso garrantzitsua da. Badago jendea pentsatzen duena orainaldian bizi behar dela, eta iragana ahaztu behar dela, baina ni bera bezalakoa naiz, eta uste dut oso garrantzitsua dela gogoratzea". XX. mendean egon ziren alda-

**MEMORIEN BIDEZ,
XX. MENDEAN EGON
ZIREN ALDAKETEI
BURUZ HITZ EGITEN
DU LIBURUAK**

ketei buruz hitz egiten du liburuak: "nekazal eremuak egokitu behar izan ziren makina berriei lekua uzteko, ekologiarri kolpe mingarri bat emanez, desagertu ziren Raposo haitzuloa, paduren iturria, igelen putzua, hegazti migratzaileak... Lurra lantzeko milurteko ziklo bat ixten ari zen". Lekukotza bat da: "Liburuak ez da nobela bat. Batzuetan oso deskriptiboa da eta gehiegi zela iruditzen zitzaidan. Baina orain uste dut ezetz, dokumentu bat delako. Bertan gelditzen da".

Ama hil ondoren, Beatriz alaba "tarte bat" egon zen liburuak hartu ere ezin zuena, "baina banekien egin behar nuela, azken bi urtetan berarekin lantzen egon nintzelako eta helburua edizio berria egitea zelako". Bi urte pasa direnean momentua iritsi da. "Oso hunkigarria izan da, eta niretako sendagarria ere. Oso ongi etorri zait nire arbasoekin momentuak izan ditudalako". Epilogoak idatzi ahal izateak ere "askatu" duela esan du. "Minarekin eta oroitzapenekin zerbait polita egitea, omenaldi txiki eta intimo bat".

"Beti izan dut buruan pelikula bat egitea". Pedro aitoren memoriak zinematografikoak direla esan du Beatrizek, "idatzi zituenean film batean pentsatzen zuen". Alaska hoteletik pasatako aktoreek esaten zioten film bat egin behar zuela, eta gaur egun Beatriz Salinasen Memoriak irakurri dituzten antzezleek ere film bat egin behar duela esan diote. "Gustatuko litzaidake, denborarekin". Beatriz de la Vega ere ari da bere memoriak idazten, "familiarren historiari jarraipena emateagatik". Bizitzan gertatukoari buruzko narrazio laburrak idazten ditu, "presarik gabe eta noizbait publikatuko dudana jakin gabe ere".



Hostal Alaska, 'Memorias' liburuaren argazkia. UTZITAKOIA



Beatriz Salinas Martínez de Ordoñanaren familia, liburuaren argazkia. UTZITAKOIA



Beatriz Salinas Martínez de Ordoñana, Galarretako hilerrian. UTZITAKOIA



Nerea Balda Sanjuan idazlea 'Azpimarrak' liburuarekin.

"Garrantzitsuena markatzen dute azpimarrek, hor dago gakoa"

NEREA BALDA SANJUAN IDAZLEA

Irurtzundarrak 'Azpimarrak' bere bigarren eleberria publikatu du, Erein argitaletxearekin. Bigarren eskuko liburu batetik abiatzen da istorioa

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN Hedabideen aurrean, Donostian, eta irakurleen artean, Iruñean, aurkeztu ondoren, Nerea Balda Sanjuan idazleak *Azpimarrak* bere bigarren nobela aurkezteko "festa" bat eginen du ekainaren leian, osteguna, 19:00etan, Irurtzundo Pikuxar ganbaran. Joana Ziganda Olano izanen da aurkeztu eta musika eta pasarteak irakurketak izanen dira. Zerbait "atsegina" izanen da, liburuaren publikazioa ospatzeko. Liburuaren Erein argitaletxeak publikatu

du eta Uxue Razquin izan da editorea. Lanak Ramiro Pinilla lehiaketa irabazi du; Atzerrian Baldaren lehenengo eleberriak egin bezala. Bigarren eskuko liburu bat da istorioaren abiapuntua, eta aurretik elkar eza-

"EMAKUMEAREN HISTORIAREKIN HASI NINTZEN, ETA HORTIK BESTELAKOAK SORTU DIRA"

gutzen duten bi pertsonaia dira protagonistak: Selva eta Andreu. **Nola sortu zen anekdota hori eta nola pentsatu zenuen nobela bat izan behar zela?**

Askotan ez dugu garbi izaten zein izan den abiapuntu zehatza. Oraingoan, bai. Lagun bati gertatu zitzaion bigarren eskuko liburu bat erosi zuela bigarren eskuko dena batean eta batzuetan liburu bat erosten dugunean izena jartzen dugu, eta lagunaren liburu honek aurreko jabearen izena zekarren, eta berak ezagutzen zuen. Beste-

rik gabe, kasualitate polita iruditu zitzaidan eta gorde nuen. Istorio baterako erabili behar nuela pentsatu nuen, eta halako batean horrekin idazten hastea erabaki nuen. Ideia horretatik abiatuta zer izan zitekeen pentsatu nuen: aspaldiko bi ezagun nituen, bigarren eskuko liburu bat eta azpimarratuta zegoela asmatu nuen. Lagunarena ez dakit azpimarratuta zegoen edo ez, baina nirea bai. Hasieran ipuin bat izango zelakoan hasi nintzen, eta pertsonaia aurkezten hasi nintzen ikusi nuen hari gehiago sortzen zitzaizkidalda eta konturatu nintzen zerbait luzeagoa izango zela. Hori buruan nuela garatzen jarraitu nuen.

Bi protagonista daude. Asmatutakoak dira? Nola sortzen dituzu pertsonaia?

Protagonistek ez dute anekdotaren protagonistekin zerikusirik. Kasu honetan pentsatu nuen bi pertsona elkartzen zirela, eta emakumezko bat eta gizonezko bat pentsatu nuen. Emakumearen historiarekin hasi nintzen, eta hortik bestelakoak sortzen dira. Sinopsian kontatzen dena: ama izan nahi du eta horrekin hasten da. Ondoren bestea etorri zen; nondik, ez naiz gogoratzen. Kontatu nahi duzun istorioa horretan beste gauza batzuk ere kontatu nahi dituzu eta sortzen joaten da.

Gai asko lantzen dituzu, tartean maitasuna eta amatasuna nabarmendu dituzue.

Istorio hori kontatu nahi nuen, eta gero konturatu nintzen amatasunari buruz hitz egin nuela. Pertsonaiaekin lotuta dago. Ama izan nahi du eta horrek hainbat gauza ekartzen ditu. Aitatasuna ere agertzen da. Beti istorioak berak eskatzen duena, istorioak eskatu bezala idazten ditut. Maitasunarena ere bai. Beti izan da gai bat ez dut esango beldurra diodala, baina bai izan da gai bat ez dudana gai nagusi bezala landu. Ez dakit nahita edo nahigabe izan den. Maitasuna hortik egon daiteke, baina ez gai nagusi bezala. Oraingoan bidea zuen. Maitasuna zentzu zabalean; harreman mota desberdinak agertzen dira

"EZ DA MAITASUNEZKO ISTORIO BAT KONTATU NAHI IZAN DUDANA"

ere. Ez da maitasunezko istorioa bat kontatu nahi izan dudana; hau kontatu nahi dut eta hor sartzen dira beste gauza batzuk. **Zer dauka Ramiro Pinilla lehiaketak?** Atzerrian, lehenabizikoa, irabazi nuen eta bigarren honetan izan da lan hori kokatzeko akuitua. Idazten hasi nintzen, eta pandemia garaian, itxialdiarekin, idazteari utzi nion; ez nengoen horretarako zentratuta. Gaixotu nintzen eta hamabost egunez logelan itxita gelditu nintzen, eta ekin nion berriro eta egun horietan martxa hartu nuen. Istoria idazten jarraitu behar nuela pentsatu nuen. Azaroa zen eta Ramiro Pinilla otsailerako aurkeztu behar zen. Denbora emango zidala pentsatu eta nire burua pixka bat horretara bultzatu nuen. Orduan, aurkeztu nuen baina irabaziko nuenik pentsatu gabe. Aurkezten duzuean beti dago aukera hori, baina ez nuen horretarako aurkeztu. Hasieran zerbait motza izan behar zen, eta gero luzeagoa izan zen, baina ez oso luzea ere; eleberri laburra. Oso eskertuta nago lehiaketari eta Erein argitaletxeri. Gauzak erraz jarri dizkide.

Testu originaletik oso gutxi aldatu duzue. Narratzaileak, ezta?

Ez bereziki narratzaileak. Nire lehenengo narrazioan esperimintatzeko nuen gogo horretan hainbat eszena errepikatzen ziren batean eta bestean. Gero ikusi genuen horrek agian traba egiten ziola irakurleentzat. Batez ere hori izan zen aldaketarik handiena. Politia izan da lana. Gutxitan egin dut horrelako zerbait, aditu batek zure lana hartzea eta esatea hau eta bestea horrela hobe ikusten dira, eta gero zuk berriro hartu eta buelta eman. Politia izan da.

Zer garrantzia dute azpimarrek?

Ezin dut gehiago kontatu hor dagoelako koxka, zer esan nahi duten. Izenburura eraman dugu horregatik, badutelako gakoa istorioan. Azpimarratzen dugunean, literaturan agian ez hainbeste gustuko esaldiak eta abar azpimarratzen ditugulako, baina irakaslea naizenez azpimarratzekoan ideiak atera behar dituzu eta garrantzitsuena azpimarratzen duzu. Horrek ere esanahi bat du. Garrantzitsu den zerbait da. Istorioan azpimarra fisiko batetik, liburuaren dagoena, garrantzitsura zer den; metafora gisa.

"Aitzkibil izango da, hiru herrietako dermioa delako"

Iturmendi eta Bakaikuri Urdiain batu zaio, eta Aitzkozar lasterketak izen berria izango du hemendik aurrera: Aitzkibil. Ekainaren 3an jokatu da, Urdiainen, eta izena ematera animatu du Urko Agirre Gabirondok

Maidar Betelu Ganboa

URDIAIN / ITURMENDI / BAKAIKU

1 Aitzkozar lasterketa Iturmendin jaio zen.

Iturmendiko Aitzkozar elkarteak hasi zen lehenengoz Aitzkozar Krosa antolatzen. Geroago Bakaikuko Bakarreoetxea elkar-tea batu zen eta elkarrekin zen-bait urte antolatu dugu lasterketa, urtero herri batean. Eta aurten Urdiaingo Tintiniturri elkarteak batu zaigu eta hiruron artean antolatuko dugu lasterketa. Herrien artean elkarlan handiagoa sortzen da, jendea gehiago mugiarazten du eta polita da, positiboa.

2 Lasterketak izen berria hartu du: Aitzkibil. Ongi ahozkatzeko ere, badu berea.

(Kar, kar) Badirudi konplikatzeko gustatzen zaigula. Aitzkozar izenarekin zalantza zegoen, nola idazten zen ongi, nola ez... eta orain ere antzeko izena bilatu dugu, Aitzkibil. Ez zitzaigun ongi iruditzen soilik Iturmendiko elkartearen izena mantentzea. Hor ibili ginen bueltara, eta azkenean Aitzkibil izena aukeratu genuen, justu gure hiru herrietan dagoen dermio bat delako. Hori bezain ximplea eta aldi berean konplikatu da izena. Bitxia.

3 Lasterketa Urdiainen hasi eta bukatzeko da, ekainaren 3an. 17:00etan haurren probak, eta 18:30ean proba nagusia. Ibilbidea ere berria izango da.

Aurten Urdiainen egingo dugu Aitzkibil, jendeari orain hiru herriak gaudela erakusteko. Azken urteetan Iturmendi eta Bakaikuko arteko ibilbideari bi buelta ematen genizkion (8,1 km), eta aurten Aitzkozarren lehen-dabiziko edizioa ibilbidea berreskuratu dugu, hain zuzen ere, Iturmendi, Bakaiku eta Urdiain



Aitzkozar, Bakarreoetxea eta Tintiniturriko ordezkariak, Aitzkibil aurkezten. UTZITAKOIA

batzen zituena (7,6 km). Hiru herriak batuz buelta bakarria egingo dugu. Horretaz gain, 4,3 kilometroko ibilbide laburragoa ere prestatu dugu. Probaren irteera eta helmuga eliza parean egongo da, Tintiniturri bertan baitago.

4 Nondik pasako da ibilbidea?

Urdiaindik beherantz, San Juan ermitarantz joko du. Ermita parean eskuinera sartuko da eta Iturmendirantz abiatuko da. Ibilbide laburra aukeratzeko tenak Iturmendira igoko dira eta Kamio Zaharretik Urdiainera helduko dira. Ibilbide luzeak, aldiz, Bakaikuraino helduko dira kanposantutik, Bakaikutik igo, eta San Benito ingurutik Iturmendira eta Urdiaingo helmugara iritsiko dira.

5 Nolako da lasterketa?

Iturmendi eta Bakaiku arteko bi buelta horiek nahiko gogor egiten ziren, nire irudikoz, aldapak bi aldiz igo behar zirelako eta ibilbidea zakartzen zelako.

Aurtengo ibilbidea politagoa dela esango nuke. Aldapa bakarria dago, Bakaiku zeharkatzea, eta bestela nahiko eramangarria da.

6 Aitzkibil elkartean lasterketa izango da. Elikagai biketa egingo duzue errefuxiatu guneetan errefuxiatuei otorduak eskaintzen dituen Zaporeak elkartearen alde.

Gure krosaren helburua kirola sustatzea eta herrietan mugimendua sortzea da, baina aurten gure filosofiarekin bat egiten duen beste helburu bat sustatu nahi genuen, elkartasunarena. Zaporeak elkarteak kide bat eza gutzen dugu, eta haiei laguntzeko janari biketa egingo dugu. Proba nagusian izena ematen duten kirolariak, 5 euro ordaintzeaz gain 2 kilo elikagai ekarri beharko dituzte, eta haurrek 2 kilo elikagai. Edonork bere ekarpena egiteko aukera izango du.

7 Zein elikagai gomendatu dira?

Iraungitzen edo galtzen ez direnak: arroza, pasta (espage-

tiak ez), lekak, dilistak, txitxirioak... Zaporeak elkarteak gomendatu digute plastikozko poltsetan dauden elikagaiak ekartzea, ez kristalean ontziratuta daudenak.

8 Izena ematea zabalik dago.

Dantzalekusakana.com webgunean eman daiteke izena, eta probaren egunean bertan, lasterketa hasi baino ordu bat lehenago Urdiaingo Tintiniturri.

9 Sakandarrak bertan parte hartzerantz animatu ditugu.

Jakina! Badakigu data hauetan ekitaldi ugari egoten direla, baina etxetik gertu dago eta jendea parte hartzerantz animatzen dut. Entrenamendu falta ez da aitzakia, 4 kilometro egiteko gai jende asko dagoelako Sakanan.

10 Ziur bukaeran primerako auzatea prestatuko duzuela.

Badakizu hori gure espezialitate dela eta ezin dela faltatu (kar, kar). Korrikalariak ere oparitzo bat jasoko dute. Giro polita sortuko da Urdiainen.

11 Bakaikuk, Iturmendik eta Urdiainek harreman oso naturala izan duzue beti.

Bai, gertu gauden herriak gara eta betidanik harreman izan dugu. Trinitatea horren adibide ona da. Berez Iturmendik eta Bakaikuk antolatzen dugu, baina Urdiaingo jendea ere urtero igotzen da Santa Marinara eta han biltzen gara guztiak, festara. Lehen Aitzkozar eta orain Aitzkibil beti Trinitate egunaren bezperan antolatzen dugu, eta antzeko giroa sortzea da ideia.